



ARGIA



Euskal ISBN noizko?

Egungo katalogazio sistemaren ondorio politikoak

26-31. orriak

**Hilabeteko tren tiketak
9 euroan, urratsa ala
trikimailua?**

12 | ALEMANIA

**Talde barruko
eraso matxistak
kudeatzeko gida**

32 | EMAGIN

**EHZ: Hamabi
hilabete honen zain**

42 | KULTURA



978-84-7568-824-4 3USKAL 1ISBN N01ZK0 978-84-7568-824-4

2.786 | 2022/07/10 | 4,00 €

Babestu euskal kazetaritza independentea

Prezio
finkorik gabe.

Ordaindu
nahi duzuna.

Egin ARGIAkoa

www.argia.eus/eginargiakoa

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ILUSTRAZIOA: **IÑAKI LANDA**

Iritziak

- 21 | BALEREN BAKAIKOA
- 22 | SONIA GONZALEZ
- 23 | BEÑAT IRASUEGI
- 23 | ITXARO BORDA
- 24 | AHOZTAR ZELAIETA

Finkoak

- 38 | DENBORAREN MAKINA
- 39 | ARGIA KOMUNITATEA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA: ANE ZUFIAURRE
- 58 | BERANDUEGI

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


32 | ZER EGIN NORBERAREN TALDEAN ERASO MATXISTAK GERTATZEAN?

Emagin elkarteak gida bat plazaratu du, elkarte bakoitzak eraso matxisten aurrean bere protokoloa garatu dezan. Justizia berrosatzaila hartu dute oinarri, ez eredu punitibista. Leire Artolak gida honen egileei galdetu die talde barruan erasoak gertatzean agertzen diren jarrera ezberdinez eta prozesuak aurrera eramaterakoan egoten diren zailtasunez.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Alemanian, garraio publikoan 9 euroko tiketa

Pello Zubiria

16 | PERTSONAIA | KOLDO MONREAL

Jarraitzen dugu etxeak egiten duela 30 urte bezala

Reyes Ilintxeta

26 | KULTURA | ISBN ZENBAKIA

Euskarazko liburuek zein leku dute nazioarteko sisteman?

Peru Iparragirre

32 | FEMINISMOA | GIDA

Eraso matxisten aurrean, ardura hartze kolektiboa

Leire Artola

36 | TEKNOLOGIA BERRIAK | MATRIX

Berehalako mezularitza libre eta deszentralizatua

Igor Leturia / sarean.eus

42 | KULTURA | EHZ

Hamabi hilabete honen zain

Iñigo Satrustegi

Jabetza

Komunikazio Biziagora
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Maddi Viana, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefona

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza
ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.


EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Berpizkundera

JOSE JIMENES / REUTERS

AXIER LOPEZ

Gizonek gerraz hitz egiten duten bitartean, —Madrilgo NATOren bilkuran izandako 32 agintarietatik, lau baino ez dira emakumeak— prentsarako hautatutako tokietan posatzen dute emazteek. Alde “atsegina” behar du arrazakeriaren, militarizazioaren eta inflazioaren goi-bilerak eta berdina zaie Salamanca auzo burgesean erosketak egitea militarrez lagunduta edo Gernika bonbardatzea agindu zuen diktadoreak berrezarri zuen monarkia afitrioi hartuta, gerren aurkako munduko ikonoaren aurrean paratzea. Lotsagorritu gabe, natural, egiten dute, haien senarrek mila milioika lagun —Txina kasu— “mehatxu” direla idatzi duten gisa berean. Ez dute haien klasismoa ezkututzen. Aurpegira botatzen digute. Ongi etorri NATOren “berpizkundera”.



MOTZEAN

Legutioko Desjabetuon
Hotela hustu zuen joan
den astean Ertzaintzak eta
zentro sozialista defendatzen
ari ziren hainbat pertsona
zauritu zituen eta bi atxilo
eraman. Elkarretaratze
jendetsua egin zuten,
gertaturikoa salatze.

Ekainaren 26an itzuli ditu
Aranzadi Zientzia Elkarateak
Migel Joakin Eleizegi Altzoko
Handiaren hezurak herriko
hilerria. 2020ko abuztuan
aurkitu zituen Euskal Herriko
erraldoirik ezagunenaren
hezurak Altzo Azpiko
hilerrian.

Nazio Batuen Erakundearen
arabera, Melillako harresian
gehiegizko indar erabilera
egon zen eta ikertu egin
behar da. Espainiako
eta Marokoko polizien
biolentziaren eraginez,
ofizialki 27 pertsona hil ziren
ekainaren 24an, Nador eta
Melilla arteko mugan.

Eskoziaren independentziari
buruzko erreferenduma
2023ko urriaren 19an
egitea proposatu du Nicola
Sturgeon lehen ministroak.

Nazioarteko literatura
euskarara ekartzen
espezializatu den Pasazaite
argitaletxeak agur esatea
erabaki du, hamar urteren
ondoren.

0-3 hezkuntza plataformak 60 eguneko greba bukatu du Nafarroan

 XABIER LETONA BITERI

Grebalariek aitortu dute ez dituztela helburuak bete, baina harro agertu dira irakasleen kolektiboak lortu duen batasunarekin, eta iragarri dute eskoletako prekaritatea amaitu ezean, grebara itzuliko direla.

Bi hilabeteko lanuztearen ondoren eta ikasturtearen amaierarekin bukatu da greba. Bozeramaileen esanetan, euren ohiko egoera ekonomikoa prekarioa da eta grebaren ondoren are eta gehiago, grebalari askok ezin dute aurrera jarraitu. Greba oso ikusgarria izan da Nafarroa osoan eta bereziki Iruñean. Protesta eta sentsibilizazio ekintzak etengabekoak izan dira, horietako askotan Foruzaingoa aurrez aurre, eta etengabe interpelatu dute Nafarroako klase politikoa.

Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioak kudeatzen dute 0-3 urteko hezkuntza publikoa, eta greba bultzatu duen plataforma haiekin aritu da negoziatzen. Lan baldintzak hobetu eta zikloaren doakotasuna betetzeko dirua, alabaina, Nafarroako Gobernuak jartzen du, eta hari zuzendu zaio nagusiki plataforma.

Alde horretatik, joan den astean bertan Nafarroako Gobernuak iragarri du 4,5 milioi euro gehiago jarriko duela da-

torren ikasturtean soldatak hobetzeko. Halaber, 55 irakasle berri kontratatuko dira datorren ikasturtean, eta 2023-2024 urterako ia beste hainbeste kontratatze-ko konpromisoa hartu du.

**“Gure duintasuna
ez dago salgai, ez
da edozerengatik
trukatzen, baizik eta,
ematen da, edo ez da
ematen”**

Grebalariek diotenez, hori ez da nahikoa, eta azpimarratu dute dauden lorpenak egindako borrokaren ondorio direla, eta jarraituko dutela borrokan 0-3 zikloa duintasunezkoa izan arte, 3-6 zikloa bezala, euren ere doakoa izan dadin: “Gure duintasuna ez dago salgai, ez da edozerengatik trukatzen, baizik eta, ematen da, edo ez da ematen”.

Datorren irailaren hasieran hitz egiten jarraitzekotan geratu dira Nafarroako Gobernua, Udalerri eta Kontzejuen Federazioa eta 0-3 zikloko langileak. ●



@ONAVARRA

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Sator-lana



ARITZ GALARRAGA

noiz hemen esana dugu gustuko ditugula memoriak, oroitzapen bildumak, biografiak, autobiografiak, egunkariak. Egunkariak, intimoak, pertsonalak, idazleek beren gauzatxoak –idazleentzat oso inportanteak direnak, eta, batzuetan, eta soilik batzuetan, irakurlearentzat ere interesgarri gerta daitezkeenak– esplikatzen dituzten horietakoak. Egunkarien baitan kokatuko genuke *L'atelier noir*, Annie Ernauxen azkena, baina egunkari intimoa baino gehiago litzateke idazketa egunkaria, hau da, liburuak idatzi arteko duda, bilaketa, hausnarrak biltzen dituen, “galeria bukaezinak zeharkatzen dituen satorraren lan hori guztiori, nire liburuen idazketa iragartzen duena”. “Egiazko idazketa” aurreko egunkari bat, alegia, “egiazkoa idazketa” abiatzen duen bezain pronto abandonatzen duena: “ezin diot ihes egin esplorazio fase honi; zeri buruz idazteko desioa dudan deskubritzeko beharra dut”. Inutila izatetik urruti, bilaketa fase hori erabakigarria da liburuaren azken formari dagokionean, izan ere, forma baita Ernauxentzat inportanteena –pixka batean Flaubertek esan zuen hura, obra bakoitzak bere baitan daramala bere forma, bilatu egin behar dena–: “nire aurrekoen errealtatea eta mundu ikuskera traizio egingo ez dien forma literario batera ekartzea”.

Literaturari aitortzen diogun handitasunik ez dugu topatuko hemen, idazketa prozesuen, idazlearen obsesioen biluztasuna baizik, tarteka errepikakor, tarteka kriptiko, zera jakingarriak ere atera daitezke bertatik. Idazketaren sekreturen baten bila gerturatzen dena, ordea, zapuzturik aterako da, ez baita Ernaux berri bat bilakatzeko jarraitu beharreko pausoen gida. Baina egunkari honek zerbait erakusten badu da, gainerako langintza guztietan bezala, sekretu bakarra dela lana eta lana eta lana –“Izututa hamabi urtez proiektu baterako pilatu ditudan oharren kopuruarekin; proiektuak 82an bezala jarraitzen du”–. Eta, halere, lanak ez dizula ziurtatzen, halakorik balego, emaitzaren asebetetzea. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

DIRUZURRA



Klima aldaketa

Dolomitetako glaziar bat urtu da, tenperatura altuengatik. Italiar Alpeetan, Punta Rocca tontorrera igotzeko bidean gertatu da elur-jausia. Marmoladako glaziarren zatia apurtu eta hainbat mendizale harrapatu ditu. Sei lagun hil dira gutxienez –beste 20 desagertuta daude astekari hau ixteko unean–.

Sexu abusuak

Eliza barruko sexu abusuen biktimak aitortzeko legea onartu dute Nafarroan. Delitua preskribatuta egonik ere, biktimen aitortza bermatuko du legeak. Nafarroako Gobernuak indarrek aurkeztu dute lege proposamena, eta EH Bildu eta Ezkerraren babesa ere izan du. Navarra Sumak kontra bozkatu du.

Presoak

Espetxe Zaintzako Epaitegiak erabaki du Gorka Martinez eta Iñaki Bilbao euskal presoek hirugarren gradua kentzea, biktimei barkamenik eskatu ez dietela argudiatuta. Duela gutxi, Auzitegi Nazionalak ebatzi zuen damutzea eta barkamena eskatzea ez direla espetxe baimenak onartzeko baldintza.

EKONOMIA

Ekonomia kontrolatu, ezin gutxiago eskatu



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Ezinbestekoak diren ura eta argia merkatuan erosi behar izatea. Non bizi edukitzeko banketxearekin betirako ezkontzea edo espekulatzaila bati hilabetero kasu egitea. Eskualde arteko garraio publikoa ziurtatzeko behar den dirua AHTr a bideratzeagatik lanerako kotxea hartzea. Seme alabak antzerkira eramateko etxean plangintza ekonomiko bat egin behar izatea. Laburbilduz, bizitzeko merkatura jo behar izatea.

Inflazioa zer den ikasi behar izan dugun honetan, ongi dago gobernuei gogoraraztea ez garela langileok izan gure eros ahalmeneren menpe bizitzea erabaki dugunak. Ez dugula guk erabaki merkatua izatea gure herrietako ekonomia zuzentzen duena, eta erabaki ekonomikoak esku pribatuetan utzi ditugunak. Ongi dago gogoraraztea gure gainetik pasa direla, interes partikularrak gailentzen dituen sistema ekonomikoa ezartzeko. Eta hala bada, iraingarria da soldatak eguneratzea exijitzean egoera ekonomikoari begiratzea eta ulerkorrak izatea eskatzea. Norberaren ardurei iskin egiteko eskapismo politikoa berriro ere.

Pobreziaren arriskua nabarmen igo zen 2021ean, joan den astean eman dizkiguten datuen arabera, baita soldatekoen artean ere. Baldintza hauetan, bizitzaren garestitzea aurre egiteko soldatak defendatzeko greba egitea eta zerbitzu publikoak exijitzeko kalera ateratzea arduraz jokatzeko da, ez besterik. Baina egoerari buelta ematea ez dago gure esku. Merkatuari mugak jartzea eta enpresei aski da esatea, hori da gobernuei exijitzen dieguna. Asko da agian, baina ezin gutxiago eskatu. Funtsazkoa eta ezinbestekoa da pobreziari aurre egiteko. ●

ANALISIA



Makroproiektu berria, berdez mozorrotua

URKO APAOLAZA AVILA

Basotik fundazioa aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak, lurralde horretako baso pribatuen kudeaketa "aurreratua" egiteko asmoz. Markel Olano ahaldun nagusiaren esanetan "kudeaketa jasangarria egin eta jauzi kualitatibo bat eman" nahi da sektorean. Datuak ez dira nolana hikoak: bost urtetan 8 milioi euro inbertitutuko ditu Aldundiak; gainera, 40.000 hektarea kudeatu nahi dituzte, gehienak 9.500 baso-jabe txikirenak, horretarako lagapen bidezko eredu oinarri hartuta. Olanok fundazioaren aurkezpenean esan zuen Gipuzkoako lur-azaleraren %61 dagoela basoz estalita eta CO2a xurgatzeko "altxorra" direla. Baserritarren errelebo falta, esplotazioen tamaina txikia edo banda marroien gaitza argudio bezala hartuta, kudeaketa "profesionala" eta "kontzentratua" egin nahi dute, "oso superfizie edo azalera handian". Alemania, Norvegia eta Europa iparraldeko antzeko herrialdeak izan dituzte inspirazio iturri Basotik sortzeko.

Naturkon Gipuzkoako Natur Taldeen elkarteak baserritar eta lur-jabeak administrazioaren "zerbitzari eta subsidiario" bihurtu nahi izatea leporatu dio Aldundiari. Baso Biziak plataformak ere hausnarketa plazaratu berri du gaiaren inguruan. Bere esanetan gezurra da Gipuzkoako %61 basoa denik eta landaketa monoespezifikokoak baso gisa hartzen dituztela salatu du: "Monolaborantza mozorrotuaren aldeko apustua dute mahai gainean". Gainera, ez du baztertzen enpresa hori gerora "diru publikoarekin pribatizatzea". Biomasa industrialera bideraturiko landaketa horiek, bestalde, klima aldaketaren kontrako borrokan balantze energetiko negatiboa dutela ziurtatu du.

BASOAK, KAPITALAREN HARRAPAKIN

Aurkezpenean fundazioaren sorrera tindu berdez jantzi nahi izan badute ere, *greenwashing* estilo hoberena erabiliz, emandako datuek eta oinarri bezala harturiko ereduak argi erakusten dute ikuspegi estraktibista eta produktibo hutsarekin sorturiko egitasmoa dela. Donella Meadows ingurumen zientzialariak sistemei buruz erakutsi zigunez, mentalitate horrekin, sistema berriztagarri batek hala izateari uzten dio: basoak soilik baliabide erreserba gisa erabili eta etekinak lortzeko kapitalaren harrapakin bihurtzen direnean, gehiegizko pautak sortu eta kolapsoa dakarte. Ingalaterra Berrian (AEB), adibidez, hango baso erraldoiekin horrela gertatu zen XIX. mendean kolonoak iritsi zirenean.

Hortaz, Gipuzkoako lurra industria-forestalistaren kolonia edo fabrika handi bihurtu nahi badira, horrek izen bat dauka: makroproiektua. ●



SUTEAK

2.257

laborantzarako lur hektarea kaltetu dituzte suteek Nafarroan. Horietako gehienak zerealari eskainitako lurraz dira. Erretako baso eremua berriz, 12.000 hektareatik gorakoa dela aurreikusten da.

6.000

hektarea inguru hondatu zituen suteetako batek (Uxue, Galipentzu, Lerga eta San Martin Unx inguruan piztu zenak) eta Nafarroako Gobernuak adierazi duenez "nahita egindako giza jarduera" izan zen suaren jatorria.

10.000

euro jarri ditu Errigora ekimenak, Nafarroako suteen kalteei aurre egiteko. Kanpaina abiatu du aldi berean, euskal herritarrei ere ekarpen ekonomikoa egiteko eskatuz.

"Pablo Gonzalezek komunikazio zuzenerako duen eskubidea urratzen ari dira, eta gainera, hiru adin txikikori ukatzen diete aitarekin komunikatzea"

OIHANA GOIRIENA

Polonian preso duten kazetariaren bikotekide Oihana Goirienak bizi duten egoera ezohiko eta "zentsugabea" salatu du Eusko Legebiltzarrean.

2022-06-27



"Aldaketak eman behar dira derrigorrez, berdintasunera ailegatzeko"

ANE MARURI

San Pedro egunean, lehen aldiz emakume bat igo da aurten Lekeitioko kaxa gainera, Kaxarranka dantzatzera. Ane Maruri da dantzaria.

EITB (2022-06-28)

"Herriko bandera eman diot alarde parekideari, berau bultzatzen dutenak direlako Irunen berdintasunaren aldeko ekintzarik handiena egiten dutenak"

MIREN ECHEVESTE

Ahal Duguko Irungo Udaleko Berdintasun zinegotziak eman die alarde parekidekoei bandera (udal gobernuko kide batek lehen aldiz). Jose Antonio Santano alkateak ez die harrera egin.

2022-06-30



TEKNOLOGIA

Adimen artifiziala eta aurrezte



DIANA FRANCO

Lankide batek SPRIk duen lantegi baten inguruan hitz egin dit: "Aurre hartu zure kontsumo energetikoari: Nola lagun diezazuke adimen artifizialak energia aurrezten?". Ukrainako gerraren ondorioz energia garestitu da. Zentzu horretan, adimen artifiziala (AA) aurrezteko tresna bat izan daitekeela proposatzen du lantegiak. Lankide honekin hitz egiten ohartu ginen "aurrezte" horrek inbertsio bat ekartzen zuela. AA bat datuekin elikatu behar da, elektrizitatea noiz eta nola erabiltzen dugun ikasi dezan, aurrezte erabakiak hartzeko bidean. Beraz, aurrezte horren lehenengo kontraesana dugu, etxean/enpresan ditugun sistema analogikoak ez dute balio, eta sistema digital bat jarri beharko dugu.

Beharbada, garatzaileek esango digute egungo inbertsioak epe luzera abantailak ekarriko dituela: epe luzera inbertsioa amortizatuko dela energiaren kontsumoan egindako aurrezkia dela eta. Beharbada bai. Baina noski, gure enpresaren/etxeen kontsumo energetikoarekiko jokabideen pribatasuna galduko dugu. Guk baino "erabaki hobeak" hartzen dituen sistema honek gure kontsumo prozesuaren kontzientzia galtzera eramango gaitu, neurri batean. Eraiki dugun mundu konplexu honetan, gu baino hobeto maneiatzen den AA baten laguntzaren beharra areagotuko da.

Horrekin guztia ere, onura gisa ikusi dezakegu AAren inplementazioa aurrezte handitzeko, baina ez dezagun ahaztu energiaren prezioa jartzen duena ez garela inoiz gu izango. Horregatik, AAk gidaturiko sistema hauetan kontu handiz ibili behar dugu, gure datuen metatzea non eta noren eskuetan egongo den. Gure kontsumo jokabideak baldin badakizki energiaren prezioa jartzen duen enpresak, aukera izango du gure aurrezkiaren kontra egiteko. ●

NAZIOARTEA

Ezkerrean
Rodrigo Duterte
eta eskuinean
Filipinetako
presidente berria
'Bongbong'
Marcos.



Filipinak: autoritarismotik diktaduraren zuriketara

AXIER LOPEZ

Rodrigo Duterte eskuindar nazionalistak Filipinetako gobernu utzi du. 2016ko hauteskundeak alde handiz irabazi zituenetik, bere agintaldiaren zedarr nagusia "drogen aurkako gerra" izan da. Ustez narkotrafikoaren eta kontsumoaren aurkakoa zen kanpaina horren izenean, milaka pertsona hil dituzte –erakunde batzuek 20.000 biktima aipatzen dituzte, gehienak klase behartsuenetakoak–. Izaera autoritario eta murriztailea duten arau berriak ezartzeko oso baliagarria egin zaio gobernuari. Nazioarteko Zigor Auzitegiak ikerketa abiarazi du Filipinetan gizateriaren aurkako balizko krimenengatik.

Duterteren "gerra" horren izenean izandako ustelkeria eta botere abusu kasuak salatu dituen komunikabideetako bat Rappler albiste atari ezaguna izan da. Eta, hain zuzen ere, presidentetza utzi baino egun bat lehenago, Duterteren gobernuak Rappler ixteko agindu du pasa den astean, atzerriko erakundeen esku dauden komunikabideen jabetzaren inguruko arauak urratzen dituela argudiatuta. Rapplerren sortzaile eta 2021eko Bakearen Nobel saridun Maria Ressa adierazi du prozedura "oso irregularra" izan dela. Kazetaritza ez da erraza izan urteotan. 2016ko ekainean, ondokoa esan zuen Dutertek prentsaurreko batean: "Kazetariak izateagatik ez zaudete salbuetsita erailak izatetik, putakumeak bazarete".

MARCOS BUELTAN DA

Ekainaren 30ean burutu da botere-aldeketa: maiatzeko hauteskundeetan babes zabala lortu ostean, presidente berria Ferdinand Marcos diktadorearen semea izango da, *Bongbong* Marcos ezizenez ezaguna. Duterte badoa, baina ez bere klana. Bere alaba Sara Duterte-Carpio izango da Marcosen presidenteordea.

Marcostarrak boterean dira, diktadura amaitu zenetik 36 urte igaro ondoren. 1980ko hamarkadaren hasieran ustelkeria eta krisi ekonomikoagatik erregimena ahultzen hasia zen, baina erorketaren mugarri nagusia 1983ko abuztuan gertatu zen: oposizioko buru Benigno Aquino hil zuten, buruan tiro bat emanda, erbestetik bueltan Manilan lur hartu bezain laster. Bere alargunak, Corazon Aquinok, mugimendu bat gidatu zuen, 1986an diktadorea kanporatu zuena. Marcos eta bere familia Hawaiin erbesteratu ziren. Bera ez zen inoiz Filipinetara itzuli eta 1989an hil zen. Bere alarguna –diktaduraren aurpegi eta protagonista nagusia– Imelda eta semeak 1991n itzuli ziren Filipinetara Aquinoren baimenarekin. Handik gutxira berriz ere politikan sartuta zeuden, mantendu zituzten babes eta lotura politiko-ekonomikoei esker.

Marcos familiako inork ez ditu diktaduran egindako ankerkeriak kritikatu. Ferdinand Marcos juniorren garaipena diktadura zuritzeko urteetan egindako lanaren gailurra da. Izan ere, ultraeskuina eta autoritarismoa ez dira Europar bakarrik aurrera egiten ari. ●

Autodeterminazio eskubidea aldarri

 GURE ESKU

PIRINIO BIDEA / Uztailaren 2an milaka euskal herritar eta kataluniarrek Pirinioetako 300 gailurretik gora argiztatu dituzte erabakitzeko eskubidearen alde. Nazioarteari mezua igortzea izan da helburu nagusietako bat. “Gailurretan bizitakoa gure memoria kolektiboan eta bihotzetan” geratuko dela esan du Gure Eskuk, eta “burujabetza osoaren alde” aktibatzeko dei egin diete euskal herritar guztiei.



ALEMANIAN, 9 EUROKO TIKETA: GARRAIO PUBLIKOA BIZIBERRITZEKO URRATSA ALA JENDEEN HASERREA BARETZEKO TRIKIMAILUA?

Hiru hilabetez, Alemanian kasik doan –9 euro hilabeteko!– bidaiatzeko aukera, horra harri batez bi txori hil nahia: garraio publikoak sustatuz ingurumenari lagundu eta inflazioagatik urduri dabilen herritarra baretu. Lortuko ote ditu helburuak? Deutsche Bahn tren konpainiak, bada ez bada ere, ohartarazi du trenak jada atzerapenez dabiltzala eta zaharkitutako azpiegiturak moldatu arteko urteetan gorabehera handiak izango direla.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Aspaldiko uda beroena izanen da, ez izan dudarik, 2022koa. Lurraren klimaren berotzeak eragindako galda biziari gehitu baitzaizkio energia krisia, jendeak langabezia eta bizitzaren garestitze handiaz zigortu dituen estualdi ekonomikoa, Ukrainako gerra eta –iragartzen zaigunez– baita elikagaien urritze orokorra ere.

Gobernuek fite mugitu beharra daukate herritarrei erakusteko ondo ulertu dutela haien ezinegona: estatu guztieki iragartzen dituzte neurri sozial deigarriak, atzo bertan aipatu ere ezin ziren merkatuaren indarrak jainkotu dituen Mendebalde neoliberalen: bat-tak familia zaurgarrientzako bonuak,

besteak deskontuak gasolinaren prezioan, honek energiaren multinazionalen hegalak moztea, hurrengoak garraio publikoak kasik debalde...

Alemaniko gobernuak asmatu du deigarriena. Sozialdemokratek, Berdeek eta Liberalek osatutako koalizioak iazko udazkenean gobernu programan garraio bide publikoen sustatzeaz adostutako neurri izarretako bat ekainean gauzatu du: aurtengo udarako ezarri dute hilabete osorako balio duen 9 euroko tiket unibertsala, herrialde barneko edozein garraio bide publiko erabiltzea ahalbideratzen duena. Gobernuak 2.500 milioi euroz elikatu duen *9-Euro-Ticket* operazioa uler daiteke alemanak hiru hilabetetan egiten ari diren test moduan ere, agintarieki ezarritako

neurri sozialek zein eragin eta ondorio dituzten frogatzeko. Horiek eta askoz gehiago beharko baitira, aditu askoren iritzian, udazkenean asko estutuko den krisi orokorraren aurrean bake soziala kontrolpean edukitzekotan.

Maiatza amaitzerako zazpi milioi tiket salduak zituzten eta garraio publikoaren patronalak kalkulatu du uda osoan zehar 30 milioi tiketen langa gaudituko dutela. Berehala zabaldu dira neurriaren arrakasta erakusten duten jende mugimenduen albisteak. *Nius* egunkari digitalean Salvador Martinez Masek kontatua du Mendekosteko zubian zientoka punki gazte eta ez hain gazte bildu zirela Alemaniako iparrean dagoen Sylt ugartean ospatutako hiru eguneko jaialdira, “ordu luzez bidaiatu



GARRAIO PUBLIKOAK, ESKURAGARRI

9 euroko tiketarekin edozein herritarrek hilabetez erabil ditzake Alemaniako garraio publiko guztiak, distantzia luzekoak ezik.

ostean, transbordo ugari eginda. Heda-bide eta sare sozialek erakutsi dituzte punkiok Sylteko hiriburu Westerlandeko plaza nagusian festa zalapartatsuan. Leku turistiko eta nahiko elitista den Westerlandeko irudiok –askori oroitarazi dizkietenak Berlin edo Hanburgo-ko auzo alternatiboetako asteburueta-koak– ez ziren posible izango ez balitz izan 9 euroko tiketarengatik”.

Txalo orokorren ifrentzuan, neu-riokiko fidagaitz eta kritikoak ere asko dira, Thomas Schnee kazetariak kontatu duenez *Billet de train à 9 euros en Allemagne: entre enthousiasme immédiat... et déraillement à venir* ("9 euroko tren txartela Alemanian: berehalako ilusiotik... badatorren istripura") kronikan, *Marianne* astekarian. Länder

**Hilabete osorako balio
duen 9 euroko tiketa
ezarri dute, uda honetan
edozein garraiobide
publiko erabiltzea
ahalbideratzen duena**

autonomoetako agintari batzuen ustez, jarritako helburua ezingo da lortu soilik 2.500 milioi euro inbertituz. Landa eremuko eskualdeak dira kexu, batez ere, hiru hilabetezko operazio honek funtsean hiritarrak lagunduko dituelako, baserri eremuetan egin beharreko inbertsioak berriro ere ahaztuta.

Garraiobide publikoen erabiltzaileen elkarteak eta ekologista asko ere ez daude pozik, agintariak funtsezko arazoari heldu ordez opor garaiko demagogia egin omen dutelako. Eta funtsezko arazoa zein den azaltzera etorri da... nor eta gure SNCF, RENFE eta Euskotrenen parekidea den Deutsche Bahn-eko zuzendaria: egia dela azken hilabeteetan lau trenetik hiru beranduegi dabiltzala, Alemanian sartuta daudelako zaharki-

tuta dagoen trenbide sarearen matxurak konpontzeko eta azpiegitura osoa modernizatzeko lanetan. Richard Lutzek gaineratu du egoera hau ez dela bideratuko gutxienez... 2030 urtea arte!

The Local albistegi elektronikoa Brian Melicanen sinadurarekin argitaratu du: *Germany's €9 ticket for summer is just a gimmick, not a solution* ("Alemaniako 9 euroko tiketa trikimailu bat da, ez soluzioa"): "Herritarrok, batez ere ni bezala gure bizi osoa garraio publikoan egin dugunok -autoa gidatzen ere ez dut ikasi- ez genuke erori behar euforia orokortu honetan eta zorrotzago aztertu beharko genuke zein diren 9 euroko tiketaren balizko helburuak eta ea lortu ote ditzaken. (...) Nire ustez, 9 euroko tiketa ez da eraginkorra izango, eta hori onenean; zeren eta txarrean desastre txiki bat izango da".

Garraibide publikoen erabiltzaileak eta ekologista asko ez daude pozik, agintariak arazoari heldu ordez opor garaiko demagogia egin dutelako

Gobernu koalizioan, neurri honen helburua Berdeentzako da tiket kasik dohainekoarekin garraio publikora erakartzea sekula interesatu ez zaizkien herritarrek, autoen erabilera gutxituz. SPD sozialdemokratak udako pizgarri ekonomiko bat, opari bat, eman nahi lieke krisiak estutasunean jarri dituen herritarrei opor garaian. Garraio publikoak maite ez dituzten FDPko liberalek ez dute oztoporik jarri, aldi berean autotzako erregaien prezioetan ere laguntzak erabaki direlako -liberalek sekula ez dute sinetsi garraio publikoan-.

Alemanian, dio Melicanek, garraio publikoan okupazio tasa %80an baldin bazegoen, neurri honekin lortuko dena da tren eta autobusetan jende pilaketak handitzea, noiz eta COVID-19a erabat kontrolatu gabe dagoen eta maskara erabiltzea derrigorrezkoa denean. Oronen

JAIALDIETARA IA KITORIK

Punki jendea Westerlandeko geltokira iristen Mendekosteko jaialdira: 9 euroko tiketaren arrakastaren ikurtzat erakutsi dituzte hedabideek.





CHRISTOPH SCHMID

TRENBIDE SAREA, ZAHARKITUTA

Azken hamarkadetan agintariak inbertsioak murriztuta, Alemaniako trenbide sarea zaharkituta dagoela aitortzen dute konpainiako arduradunek berek.

buru, lehendik tarifa normalekin ere bi-daiatzeko arazorik ez zeukaten askok orain hiru hilabetez kasik doan bidaiatu ahal izango dute; garraio publikoen betiko erabiltzaileek, berriz, sufritu beharko dute antxoak latan bezala bidaiatu beharra... eta uda amaieran tarifa arruntak itzultzean zerbitzu publikoak aurkitu daitezke erabiltzaile jaitsiera handi batekin. Hori litzateke 9 euroko tiketaren ustezko arrakastaren paradoxa.

Azken hamarkadetan auto pribatuaren mesedetan inbertsiorik gabe baztertutako garraio publikoei begira jarri

**Alemanian azken
hamarkadetan autoaren
mesedetan inbertsiorik
gabe baztertutako
garraio publikoei begira
jarri dira orain agintariak**

dira orain agintariak Alemanian, ea horrekin arindu dezaketen bizimoduaren garestitze orokorrak eta zehazki erregaien prezio esajeratuak jendeetan eragindako larritasuna. Aurretik ezin jakin ea 9 euroko tiketarena suertatuko den arrakastatsa edo porrot, baina bai da ziurra ekain, uztail eta abuztuan luzatuko den esperimentuak informazio ona emango duela bai jendeen jokabideez eta bai garraio publikoaren lorpen, ezintasun eta beharrez. Norbait egongo al da Euskal Herrian ere esperimentu horri begira. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com



Koldo Monreal

ERAIKI HABIA



JARRAITZEN DUGU ETXEAK EGITEN DUELA 30 URTE BEZALA



Etxe bat egitea, alokatzea edo erostea ez da maiz egiten dugun zerbait, baina bai bizitzan egiten dugun inbertsiorik handiena, normalean. Hori ez da aldatu aspalditik, bai ordea etxegintza ulertzeko modua. Guk zaindu beharreko etheen partez, gu zaintzen gaituzten etxebizitza osasungarri eta jasangarriak altxatu behar ditugu. *Passivhaus*, energia kontsumo ia zerodun etxeak... kontzeptu berriak dira gutako gehienontzat, eta Koldo Monreal enpresari ekintzaileak pasioz aldarrikatzen dituenak.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Askotan hitz egiten duzu balioez. Nola uztartzen dituzu horiek etxegintzarekin?

Bizitzan badira moldeatzen zaituzten irakaspenak eta gertaerak. Gaztetatik dantzaria izan naiz, hamaika urtez Iruñeko gaitariekin aritu nintzen lanean, Iruñeko inauterien berreskurapena sustatu nuen... eta giro horretan ikasi nuen gauza guztiak beti gertatzen direla arrazoi sozial eta politikoengatik. Inguruan izan nituen pertsonei esker eskuzabal izaten ere ikasi nuen. Gaztetxo nintzela, Lanbide Heziketatako ikasketak egitera

bideratu ninduten. Hala ere, hura bukatutakoan UBI egitera sartu nintzen karrera bat egiteko asmoz. Han filosofia, artea edo historia ezinbestekoak direla deskubritu nuen, eta Soziologia eta Zientzia Politikoak ikasteari ekin nion, baina ordurako lanean ari nintzenez, ikasketak ezin izan nituen amaitu.

Kultura eta artetik beti hurbil sentitu naiz eta horregatik kultura ekoiztetxe bat abiarazi nuen. Artelanez sortarazten dizkizuten sentipen horiek nire lanean eramaten saiatu izan naiz beti, baita eraikuntzaren alorrera ere. Ezagupen

horiek guztiak eta jendartearekiko dudan interesa nire lanarekin uztartzen saiatzen naiz beti. Bizitokia oso garrantzitsua da eta jendearekin pixka bat zoriontsuago izaten lagundu nahi diogu.

Nola iritsi zinen eraikuntzaren alorrera?

Komertzial gisa hasi nintzen. Gero, 2008ko krisialdi latza hasi zenean, Frantziako enpresa batek eskaintza egin zidan haiekin lan egiteko, baina nik nahiago izan nuen haien materialen inportatzaile bihurtu. Teilak eta teilatue-



Koldo Monreal Lafuente

IRUÑEA, 1972



Onhaus, passivhaus materialen inportazioan eta banaketan espezializatutako enpresako zuzendari kudeatzailea da, eta energia kontsumo ia zerodun eraikinetan (EKZE) aholkularia. Berak eraiki zuen Passivhaus Institut erakundeak estatuko kontsumo ia zerodun gisa ziurtatutako lehen etxebizitza eta bertan bizi da, Lekunberrin. Edifica azokako zuzendaria, formakuntza ikastaro, artikulua eta hitzaldi ugariaren egilea eta argitaratze dagoen *El nido que eres* (Zaren habia hori) liburuaren egilea da.

tako materialak hasi nintzen ekartzen. Nire telefono mugikorrarekin, emaztearen autoarekin eta seme txikiaren logela bulego bihurtuta hasi nintzen. Krisialdi gogorrean izugarri handitu zen enpresa. Berehala lau langile izatera pasa ginen eta gaur egun hamabost gara. Honekin batera, Hobeki ingeniari taldea sortu genuen, gure atal teknikoa, orain enpresa independente bezala funtzionatzen duena.

Eta kontsumo gutxiko eraikuntzaren alorrera nola iritsi zinen?

2013an familiarentzat etxea egitea erabaki genuen. Han ikusi nuen zenbat gauza txar dagoen eraikuntzaren munduan. Txarretik askoz gehiago dago onetik baino. Engainatu ninduten eta gure aurrezki guztiak galdu genituen Basaburuan egin nahi genuen etxean. Eraikitzaileari esker, gaur egun Lekunberrin dugun orubea lortu genuen. Ordurako bi umeren guraso ginen jada eta gure ametsetako etxea egin nahi genuen, jende gehienak bezalaxe: etxe bat jasangarria, efizientea, arduratsua naturarekin... Arkitekto ezagun bat kontratatu genuen, baina berehala ikusi genuen 30 urte zeramala lanean batere birziklatu gabe.

Etxea ia amaituta zegoelarik, ez geunden oso pozik eta lagun batek *passivhaus* estandarreko etxe bat egiteko gomendioa eman zigun. Hitzaldi batera eraman ninduen eta han, hala-ko etxe batean bizi zen pertsona batek bere sentazioak deskribatu zituen, nik orain ditudan berberak. Han erabaki nuen beste etxe bat nahi nuela. Etxe berri bat nahi nuen eta egiten ari ginena zaharra zen, ordea. Bota genuen egiten ari ginena eta hutsetik berriz hasi. Horrela altxatu genuen Plazaola Etxea, penintsula osoan Passivhaus Institutuaren energia kontsumo ia zerodun ziurtagiria lortu zuen lehen etxea, eta han bizi gara 2014az geroztik.

Nolakoa da halako etxe bat?

Etxea gure bigarren azala da. Izugarri eragiten digu gure osasunean eta ongizatean. Nik argi nuen patologiarik gabeko etxe bat nahi nuela.

Hau lortzeko etengabe airea garbitzen dugu fluxu bikoitzeko sistema baten bidez, tenperatura egonkor mantentzen duena. Horrekin batera, CO₂-aren, hezetasunaren eta hozbe-

roaren neurketak egiten dira aldioro airearen kalitatea ziurtatzeko. Hori gauean nabaritzen da, bereziki. Ate eta leihoak ixten baditugu CO₂ maila igotzen da eta oxigenoarena gutxitu, ondorioz, burmuinak eta gorputzak, oro har, atsedean gutxiago hartzen dute.

Prestazio handiko etxe batean hori ez da gertatzen, eta gainera ez dago usainik, hezetasunik, hautsik edo intsekturik. Aire garbia dago beti eta tenperatura berean. Isiltasuna ere erabatekoa da. Arazo handienetako bat etxe batean izaten da guk geuk sorrarazten dugun hezetasuna nola atera. Normalean leihoa zabalduz egiten dugu, baina etxe hauetan aireztatzeko sistema da hori egiten duena. Leihoak badituzu, beste funtzio asko ere badituztelako, baina etxea haizeberritzeko ez dira beharrezkoak.

Ohituta gaude etxerako lan egitera, baina etxe berri hauek, aldiz, zu zaintzen zaituzte. Horretan datza diferentzia. Teknologia guzaz bete dizkigu etxeak eta oraindik ez dugu ulertu ez dela efizienteagoa eguzki plaka piloa duen etxea, adibidez, baizik eta energia gutxien behar duena. Horretarako ongi egin egin behar da, jakina. Eta ez da horretan amaitzen. Orain, dagoeneko, hasi gara hurrengo urratsa ematen: zero positiboan gaude. Hau da, behar dutena baino energia gehiago sortzen duten etxeak ari gara egiten.

Zertan datza Passivhaus zigilua?

Ni ez naiz zigilu pribatuaren laguna, uste dudalako ziurtagiri eta bermeen sistemak publikoak izan beharko lukeela, baina existitzen bada, kudeaketa publiko ez delako iristen izango da.

Passivhaus Institutua fisikari talde batek sortu zuen. Duela 25 urteko Alemaniaren egoera energetikoak bultzatuta eta energia kontsumoarengatik kezkatuta, hasi ziren pentsatzen nola lortu eraikinen energia kontsumoa murriztea eta bost puntutako bete-beharreko oinarri bat zehaztu zuten: isolamendua erabatekoa, hermetikotasuna (gure enpresan egiten duguna), zubi termikoen deuseztapena (balkoiak hotza pasatzen badu, zuk hotza pasatzen duzu), airearen fluxu etengabea aire garbia izateko eta leiho egokien instalazioa. Nik, hala ere, beste bat gehiago aldarrikatzen dut: eguzkiaren kontrola. Eguzkiaren



argia behar dugu, baina tenperatura kontrolatu beharra dugu, are eta gehiago orain klima aldaketak dakarkigun berotze globalarekin.

Hori da, funtsean, etxe bat egiteko aintzat hartu behar duguna. Eta berdin dio zer zigilu jarritzen diogun. Hori da sinesten dudana eta nire lan taldeari kutsatu diodana: zer bait ongi egiten badakizu, zergatik ez duzu beti hala egin behar?

Eraikuntza zer puntutaraino ari da aldatzen gurean?

Oso mantso. Europatik urrun gaude oraindik. Parisko eta Municheko azoketara joaten gara aspalditik eta Munichekoa, bereziki, izugarria da.

Hamabost urteko edo gehiagoko alde dauka Espainiako egoerarekiko.

Eraikuntzan asko aurreratu da eta gu ez gara ohartu ere egin. Jarraitzen dugu etxeak egiten duela 30 urte bezala. Gainera estatu honetan pikarokeria da nagusi.

**“
Hasi gara hurrengo urratsa ematen: zero positiboan gaude. Hau da, behar dutena baino energia gehiago sortzen duten etxeak ari gara egiten”**

Lan lasterrak baina eskasak, kasu askotan. Uler-tezina da nola funtzio-na dezakeen horrela BPGaren %7 edo %8 mugitzen duen alor batek. Familia batek bere habia egin nahi duenean, saihestu ezin-neko pirataz inguratuturik ikusten du bere burua.

Europar produktu edo praktika berri bat ateratzen bada, denek probatu nahi dute hobekuntza bat izan daitekeelakoan. Hemen ez. Kontsumo

ia zerodun kontzeptuaz hitz egiten da, baina kalifikatzeko modua ez da berdina Europa osoan. Horren ondorioz, kontsumo gutxiko ziurtagiria duen eraikin batek ez ditu ezaugarri berdinak toki guztietan.

Adibide argigarri bat: orain arte – orain dugun energia krisialdi latza hasi aurretik–, BEZa barne, 298 euro gatatzen nuen urtean etxea berotzeko, hozteko eta ur beroa izateko, baina estatuan ziurtagiri bera ematen diote urtean 3.000 euro gatatzen ari den beste bati.

Etxebizitza da gure bizitzako gasturik handiena, horregatik arau zorrotzagoak jarri beharko lirateke, babesik gabe gaudelako. Nik nire hondar aletxoa jarri nahi dut jendarte hau alda dadin, baita funtzionatzeko moduan ere.

Zeintzuk dira zure erronkak etorkizunari begira?

Ingeniaritza enpresa bat sortu genuen bezala, eraldaketa soziala eta kulturala lagunduko duen fundazio bati bidea emango diogu orain. Enpresa honetan kooperatiba batean bezala funtzionatzen dugu praktikan, baina gure lan esparrua eta gure alde soziala ere zabaldu nahi ditugu, eta formula hori egokiago izango da guretzat.

Formakuntza saioak egiten ditugu maiz, adibidez. Teknologia honetan sakontzen hasi ginenean ikusi genuen Espainian ez zegoela material egoki nahikorik prestazio handiko etxeak eraikitzeke eta zegoena, oso prezio altuan saltzen zuten. Horretaz gain, langileentzako formakuntza behar handia zegoela bistakoa zen. Hainbat enpresarekin elkarlanean hasi ginen eta, berehala, Nafarroa passivhouse tekniketan jende formatu gehien zeukan eskualdea izatera pasa zen.

Bestalde, fundazio izan nahi dugu jendartearen eraldatzeko ahalegina egin nahi dugulako. Hori da gure helburua eta, gainera, Europatik eskatzen zaiguna. Eraldaketa soziala abiarazteko masa kritikorearen %30 behar da gutxienez, eta horregatik jendea informazioa eman nahi diogu. Asmo horrekin azoka garrantzitsuak hasi gara antolatzen eta helburu sozialak eta kulturalak dituzten hainbat elkarterekin ari gara elkarlanean, desgaitasunak dituzten pertsonen Baztango Xauli elkartearekin, edota Lekunberriko Erraldoiekin, adibidez. Berriki disko bat

enkargatu diogu bertako musikari bati, gure enpresako ekintzetan erabiltzeko, eta kaleratzear dugu liburu bat etxea egin, erosi edo alokatu nahi duten pertsonen laguntzeko.

Kontsumo txikia eta eko-erakuntza bateragarriak dira?

Hasteko kontzeptuak definitu behar dira, gaur egun nahas-mahas handia dagoelako. Eko eta bio etiketak erraztegi jartzen dira. Ekologikoa ez da soilik eguzki plakak jartzea edo energia gutxi kontsumitzea. Lehengai bat jasagarria eta ekologikoa izan daiteke, baina 0KMkoa ez bada, gaizki goaz. Edo ekologikoa izan daiteke, baina energia asko kontsumitzen badu, gaizki ere bai.

Horrek kontraesana piztu zidan. Ni materialen inportatzailea naiz, baina 0KMren erabat aldekoa. Hori dela eta beste bide bat hasi naiz urratzen eta orain buru belarri ari naiz lanean Europako enpresa batzuek Nafarroan lantegiak zabal ditzaten, haien produktuak hemen ekoiztu ahal izateko. Hori epe luzerako lana da, eta horretarako ezinbestekoa da beste eragile batzuen eta gobernuen laguntza.





mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



**EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI**

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Eta Nafarroan ongi ari da jokatzeko gobernuak?

Hemen interesa dago eta konpromiso politikoa ere bai. Gobernu aldaketa izan zen 2015ean eta erabaki sendoa hartu zuten orduan bide horretatik joateko. Aurrerapauso batzuk eman dira eta beste batzuk bidean datoz. Estatuko lehen industrializazio zentro teknikoa Iruñean eraikiko da laster, adibidez. Nafarroako Gobernuak modu transbertsalean ari da lanean horretan, departamentu guztietatik eta ñabardura politikorik gabe, eta hori oso garrantzitsua da jarraitzea ziurtatzeko.

Beste lorpen bat izan da Edifica, estatu mailako azoka, Iruñera ekarri dugula. Lehen edizioa Iruñeko Baluarte egin zen eta bigarrena Ziadadelan, toki ireki eta irisgarri batean eta gainera kostu txikiarekin, etxegintza halakoa izan behar duela sinesten dugulako.

Etxebizitzaren birgaitzea ere oso ongi egiten ari da Nafarroan, Nasuvinsaren bidez. Txantrea auzoan, esate baterako, 70eko hamarkadako etxe multzoan birgaitze globala egin da, eta gainera bero zentral kolektiboa abian jarriko dute, biomasa bidez funtzionatuko duena eta 4.500 familiei berokuntza-sistema eta ur beroa emanen diena datorren urtetik aurrera. Halako proiektuak oso garrantzitsuak dira.



Etxea gure bigarren azala da. Izugarri eragiten digu gure osasunean eta ongizatean. Nik argi nuen patologiarik gabeko etxe bat nahi nuela"

Passivhaus-ek egin zuen sukalde erreteko erraza efizientea izateko, baina gainera ekologikoa eta jasagarria izaten saiatu behar dugu. Nafarroan zortea dugu erkidego txikia delako eta, aldi berean, ekonomiko nahiko sendoa. Oso administrazio irisgarria dugu. Kontseilariak, presidentea edo udalak irisgarriak dira eta hori Madrilan adibidez, askoz zailagoa litzateke. Horrek guztiak azkar eboluzionatzeko aukera ematen dizu eta aukera ez dugu galdu behar. ●



Iritziak

Neoliberalismoa gainbeheran ote?



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

Neoliberalismoak keynesianismoari aurre hartu zion 1973ko petrolioaren krisialdiak Mendebaldeko ekonomiak larriki kolpatu eta hazkundearen moteltzea eta inflazioa, bi fenomenoak batera ematen hasi zirenean. Fenomeno hori “stagflazio” bezala ezagutzen dugu. Neoliberalak egoera aprobe txatu zuten beren doktrina ezartzeko, eta egikaritzeko hor zeuden Reagan eta Thatcher gobernu-buruak.

Hurrengo hamarkadetan neoliberalismoak indarra hartu zuen teoria eta politika ekonomikoan, eta mainstream bilakatu zitzaigun herrialde kapitalista orotan. Pentsamendu eta praktika ekonomiko hori indartze aldera, 1989an onetsitako Washingtoneko Kontsentsua erabakigarria izan zen. Ekonomia merkatuak gidatu behar zuen, enpresa publiko oro pribatizatu beharra zegoen, aurrekontu publikoak orekatu eta ekonomia desarautu, besteak beste. Halaber, neoliberalen predikuek azpimarratzen zuten ezberdintasun ekonomikoak desagertuko zirela, baita krisialdiak ari-nagoak izango zirela ere.

Horrela igaro ziren lau hamarkada, baina krisialdiek jarraitu zuten noiz-behinka azaltzen. Gurean, aipatzekoa da 1992-93ko krisialdi larria. Azkenik, 2008ko nazioarteko krisialdia etorri zitzaigun, zeinean neoliberalen teoriak porrot nabarmena ezagutu zuten. Geroztik hainbat ekonomialari ospetsuk

2008ko krisiaz
geroztik hainbat
ekonomialari
ospetsuk auzitan
ipini dituzte teoria
neoliberalak

auzitan ipini dituzte teoria horiek, hala nola Joseph Stiglitz-ek edo Paul Krugman-ek AEBetan. Frantziako Estatuan, Thomas Piketty-k datu estatistiko andana erabilita demostratu du neoliberalismoa indarren egon den garai guztian alde ekonomikoak areagotu direla eta ondarea esku gutxiagotan kontzentratu dela, aberatsak aberatsago bihurtuta eta pobrezia sakonago hedatuta. Badakigu, jakin ere, Piketty neoliberalen etsai gogorrenetako bilakatu dela eta bere teoriak gezurtatzeko saiakerak areagotzen ari direla.


Beraz, neoliberalismoaren aurkako lehen zutabeak ipini ziren aurreko bi hamarkadetan, eta gerora ekonomialari gehiago etorri dira. Berriki Olivier Blanchard-ek eta Dani Rodrik-ek liburu interesgarria argitaratu dute, *Desberdintasunak borrokatzen* (Deusto argitale-

txea), hainbat unibertsitate ospetsuetako (Harvard, MIT, Berkeley, Princeton) ekonomialari ugariren ekarpenekin. Denak ados daude esatean eredu kapitalista honetan alde ekonomikoak handitu direla, ondarea etengabe kontzentratzen ari dela eta zerbait egin behar dela, nahiz politika ekonomikoak zehazterakoan alde nabarmenak azaldu beraien artean. Desadostasun handiak dituzte sistema kapitalista bidegabe honen erreformak proposatzerakoan: errenta goren zergapetzearen alorrean, ondarean edo oinordetzan. Hala ere, neoliberalismoak ekarri egoera larriari kritika gogorrak burutu dizkiote. Ez da gutxi!

Blanchard Nazioarteko Diru Funtseko ikerketa zerbitzuburu izan zen, eta jakina da erakunde hori neoliberalismoaren sustatzaile izan dela azken hamarkadetan, nahiz azkenaldian zertxobait aldatuz joan den, ikusirik munduko ekonomia nora doan doktrina neoliberalak aplikatu ostein. Rodrik, aldiz, kritiko izan da sistema kapitalistaren funtzionamenduarekin.

Liburuaren ekarpenak ondo daude, baina ekonomialari horiek ez dute aintzat hartzen baliabide naturalak mugatuak direla eta hazkundea ez dela betirako izango. Halaber, klima aldaketa jarduera ekonomikoa baldintzatzen ari dela saihesten dute. Agian, hurrengo batean helduko diete arazo larri horiei, baita Ukraina eta Errusia arteko gerla ankerrak areagotu digun krisialdiari ere. ●

Eta Sagardui zuzen balego?



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR

ANTTON OLARIAGA

Bai, Sagardui anderea, nik ere ikusi dut zelan egin duen mundu guztiak zure kontra. Nork esango zukeen? Eufemismo ona zen. Kontu handiz bilatua, seguru. “Kultura” berba ez da inondik inora erasotzailea; areago, sinpatia sortzen du hitz hori entzute hutsak!

Zurekin nago. Kultura aldaketa premiazkoa daukagu (aspalditik). Sei gako emango dizkizut. Zuri, zeuk atera zenuelako gaia, baina edozein erakundetan aplikatzekoak lirateke, bertokoetan zein haragokoetan, udaletatik estatuz gaindiko erakundeetara, agintean edonor dagoela. Sei apunte, osatu beharrekoak, karaktere kopuruaren tiraniak ez baitit horretarako tarterik utziko:

Res publikoaren kultura berreskuratu: zerbait publikoa bada, horrek ez du esan nahi inorena ez denik (Carmen Calvok esan bezala). Jabea izan, badauka, eta ez zarete zuek. Halere, ondasun eta zerbitzu publikoen jabeak geu izanik ere, eskale hutsak bagina bezala hartzen gaituzue, jauntxoan estilora, funtzionario hutsak zaretela ahaztuta.

Erabakiak, norentzat: hartzen dituzuen erabakien gainetik zaudetela uste duzue. Eta hala da. Jakin badakizue zuei ez dizuetela eragingo. Horregatik Az-

kunak, Osakidetzako buru zela, sektore pribatuarekin trikimainetan ibili ondoren, Houstonera egin zuen minbizia osatzeko. IMQk omenaldi sentitua egin zion. Bien bitartean, berdin da Nafarroa urtez urte kiskaltzen bada. Basoetako suteek beste batzuen etxea, ogibidea, ingurunea... jotzen dituzte eta.

Erabakiak, zelan hartu: sekretu bat kontatuko dizuet; norbaitek baldin badaki zerk egiten duen huts eta zer hobetu behar den zerbitzu batean, horiek dira egunez egun gabeziak pairatzen dituztenak, horretan diharduten langileak, alegia. Baina, jakina, horiek ere eskale hutsak direnez eta, azken batez, helburua ez denez ezer hobetzea, baizik eta zuen asmoei itxura teknikoa eman-goen dien edozein txosten erakustea, kanpoko aholkularitzetan xahutzen duzue berriro geure dirua.

Soldata: ez dizuet opa gutxieneko lanbidearteko soldata, baina batezbesteko soldatatik gora zentimo bat ere ez. Edozein langile publikoren soldata, duina baina ohikoa. “Onenak” nahi dituzuela entzuteaz kantsaturik gaude. Zalantza handiak dauzkagu politikan dabiltzan hainbatek ea eskola amaitu ote zuten. Onenak izan bazarete, baina gauza bakar batean: lapurretan.

Kaleratzeak: edozein langile kalera-tua izan daiteke bere lana txarto egi-teagatik. Nafarroan, esaterako, berriz ere, inor ez da kanporatua izango. Aitzitik, orain paparra ateratzeko sasoia da: “Hondamen eremutat aitortzea lortu dugu, dirua eskatu ahal diguzue!”. Burokrazia eta miseria herritarrentzat. Zigorrik ez kudeatzaile “onentzat”.

Kontrola eta parte hartzea: aparte-ko proposamenik ez dut egingo, exor-zistaren umeari bezala buruak buelta eman ez diezazuen. Has gaitezen jadanik existitzen diren bitarteko bi birformu-latzen: arartekoak (eskumen gehiago eta ahalmen betearazlea izan dezaten) eta herri ekimen legegileak (adostasun eta sinadura kopurua eztabaidarako ez, baizik eta onarpenerako baliagarriak izan daitezen).

Eta, azkenik, dimisioa ematen duzu-nean, eskatu komunikazioaz arduratzen den morroiarena ere bai. Ez bazara hurrengo egunean zerbait defendatzeko gai, ez bota; atzera egiteari ahuldade, beldur eta engainu hatsa dario. Areago, ageriko gezurretan zabiltzanean. Murrizketarik ez lehen arretan? Itzuli egiguzue behin-goz, Mendexa eta Amoroto artean kon-partitzen dugun medikua, oxtia! (eta falta diren beste guztiak, noski). ●

Digitalizazio eredu askatzaile bat beharko dugu



**BEÑAT IRASUEGI
IBARRA**
KOOPERATIBISTA

Teknologia numerikoen garapenak jendartearen emantzipazioa lortzeko tresnak eskaini beharko lizkiguke; baina badakigu ez dela horrela izango, badakigu eta korporazio digitalek tresna erabilienak datuen, eta ondorioz kapitalaren, metaketarako erabiliko dituztela.

Jendartearen zabaltzen ari da gure bizitzaren digitalizazioaren inguruko sentipen deserosoa, ez aski kritikoa, baina gero eta gehiago entzuten dut egunerokoan nabaritzen ditugun inertziak ez direla onak. Pertzepzio horretan lagunduko zuten pandemiak behartuta hartu ditugun ohitura numeriko berriek, lehenagotik zegoen arrakala digitala sakondu dutenak, edo egunetik egunera ulergaitzagoa egiten den hezkuntzaren digitalizazio korporatiboaz konturatzeak, ikasle eta irakasleen gaitasunak Google eta Microsoften beharren baitan garatzen dituenak. Zerikusia izango du seguruena burokrasia digitalaren garapenak –ustez laguntzera datozen Ticket Bai, fakturazio eta sinadura digitalek–, negozio txiki eta langile askoren egunerokoa zaildu dutela ikusteak, tokiko enpresa txikien bideragarritasuna ere kolokan jarritz.

Jakin badakigu datuen pilaketa mugagabearen oinarritutako digitalizazioa

ez dela jasangarria, hodeiak ere energia eta metal urrien kontsumo geroz eta handiagoa egiten duela, eta horregatik gaur egungo ereduak muga fisikoa duela. Baina beste arlo batzuetan egin bezala, zergatik ez dugu gure eguneroko digitala politizatzen? Digitalizazio eredu askatzaile bat garatu beharko dugu, egunerokoan eta pazientzia estrategikoz, ikuspegia politizatuz eta tresnak sortuz.

Zorionez behar horrek martxan harapatuko gaitu, digitalizazio eredu etiko eta burujabe baterako antolaketa, tresna eta praktika sorta zabala baitugu gure inguruan. Bidearen zati handia egin dezakegu antolaketarako EH Digitala, TEKS elkarte kooperatiboa edo Hezkuntzan Libreza bezalako egitasmoei; hezkuntzarako Digital Democratic eta Txikilinux bezalako proiektuei; edo egunerokorako erabili ditzakegun, Odoo, Nextcloud, Wordpress, Linux, Firefox eta beste ehunka tresna librerekin.

Tresna eta egitasmo gehiago sortu beharko ditugu, baina bestelako digitalizazio eredu baten asmoa garatzen badugu, etikoa eta burujabea, izan dadila harremanak lantzeko, zaintza lanak banatzeko, komunitatea indartzeko eta gozamenerako denbora libre ira-bazteko. ●

Aitzakia



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Europa mailan, gobernuek ez dituzte min egin lezaketen neurriak hartzen, bereziki aldaketa klimatikoaren alorrean, jende xeheak, behartsuak, klase ertain apaletako bozkatzailerak xifritzeko beldurrez. Hori diote behintzat, halako paternalismo airea bekorian. Egia da behin hasi zirela karbono-tasarekin eta biribil-guneak sutu zitzaizkiela, Frantzian. Adibidez. Labe gaina hunkitzen duen haurrak ez du gehiago eskurik bertara hurbiltzen: ikasia du. Politikariek halaber.

Batak bestea sustatzen du eta alde-rantziz. Multinazionalen geldotasuna

justifikatzen du *statu quo* horrek. Beraien direlako mundu honen beroketa larriaren errudun nagusiak, nahiz eta karia horretara, boteretsuen diskurtso orokorrak herritar arruntak dituen bekatoros gisa seinatzen, eta horien bizkar uzten den egoeraren aldatzeko betekizuna. Diru gutxi dutenek ez dute autorik, ez dute hegazkin ibilaldi askorik egiten, ez dute janari soberarik botatzten... Iragarriko liratekeen murrizketa drastikoek sosdunak lituzkete ondorioz hertsiki gatzigatuko.

Aitzakiak baztertzen ez badira, laster, ipurdia lastoz geratuko gara. ●

Emakunderen aukera galdua



AHOZTAR ZELAIETA
KAZETARIA

Euskadiko prostituzioari buruz Emakundek argitaratu duen azken txostenak emakumeengan jarri du arreta berriro, eta negozioa mugitzen duten enpresaburuak papera gutxietsi du. *La trata de mujeres y niñas con fines de explotación sexual en Euskadi: necesidades y propuestas* (Emakume eta neskatilen salerosketa helburu sexuarekin Euskadin: beharrak eta proposamenak) txostena Deustuko eta Comillasko unibertsitateetako kideek koordinatu dute.

Ikerketaren zati handi bat GKEekin eta klubetako lau enpresabururekin egindako elkarriketetan oinarritzen da, Eusko Jaurlaritzako arduradunen eta jarduera-lizentziak ematen dituzten udaletxeen parte-hartzerik gabe. Txostenean aipatutako azterlanetako baten egilea, euskal abokatu ezaguna, hilabete honetan sartu da kartzelan, bikotekide ohiari tratatu txarrak emateagatik kondenatua.

2018ko datuekin egindako txostenaren arabera, Euskadin prostituzioari loturiko 56 klub, 57 agentzia eta erlaxazio zentro eta 380 etxebizitza daude, eta 2.308 emakume inguru ari dira prostituzioan. Egunean bi bezero izatea kalkula-

Bizkaiko industrialde batean kokatuta dauden zenbait klubi buruz ari da, baina ez du aipatzen horietako baten jabea Ertzaintzako buru bat izan zela

tzen du, zerbitzuko batz bestea 60 euroko kobratuz, eta ondorio hau ateratzen du: “66.470.400 euro dira gutxira”.

Ez dira xehatzen emakumeek beren zerbitzuengatik proxenetei ordaintzen dizkieten ehunekoak, edo proxenetek hoteletan, klubetan eta etxebizitzetan lo egiteagatik ordaintzen dituzten alokairuak, ezta ordaintzen dizkieten elikadura-pentsioak edo kontrol medikoen gastuak ere.

Beste behin ere, prostituzioan aritzeagatik atxilotutako emakumeei buruzko

datuetan jartzen da arreta, proxenetismoagatik atxilotutakoen estatistikarik gabe, eta atzerriko nazionalitateko proxenetek kasuak baino ez dira aipatzen.

Azterlanak 2002. urteaz geroztik bildu ditu datuak. Hala ere, ez du aipatzen Espainiar Estatuko klubak etekinak zuritzearen aurkako sarekada handienak, 2015. urteko Pompeya operazioa, euskal enpresa bat zuela jomugan, Estatuko 50 klubek Gipuzkoako Larratrak enpresarekin zutelako lotura.

2015era arte, Espainiar Estatuko klubetan indar handiena izan duen enpresaburu taldeak –La Rosa–, polizia-mafiekin zerikusia duenak, Euskadin zuen egoitza. Emakunderen azterlanak “la recta del amor” aipatzen du ere: Bizkaiko industrialde batean kokatuta dauden zenbait klubi buruz ari da, baina ez du aipatzen horietako baten jabea Ertzaintzako buru bat izan zela 2006ra arte.

Ez da gai arrotza, ez ofizioz, ezta maila pertsonalean ere. Mallabiko gure baserri alboan klub bat zegoen, *Egin* egunkariako Bilboko egoitza klubez inguratua genuen, Bilbo Zaharrean bizi nintzela gertu nituen eta Ordiziratu naizenetik ere ez ditut urruti. ●

“Nekazari guztiak ekologikora pasatzera animatzen ditut; onura asko ditu eta etorkizun handiko apustua da.”

IBON OLLO
Ardogilea, IRUNBERRI

**ETORKIZUNA
EKOLOGIKOA DA
aurrera goaz!**

CPAEN
NNPEK
EUSKADIA

ALIMENTOS ECOLÓGICOS
eko
logikoak
para vivir mejor

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

UNIÓN EUROPEA
Fondo Europeo Agrario de Desarrollo Rural

cpaen.org
navarraecologica.org

3. argitaraldia



XAPOKETAN

KARTA-JOKOA



15€

Bidalketa gastuak: 5 €
40 €tik gorako erosketetan,
bidalketa doan.

Ezagutu Euskal Herriko animaliak!

Euskal Herriko lurralde banatako zazpi ekosistema eta 42 animalia ezagutuko ditugu. 5 jolas ezberdin egin daitezke: familia jolasa, puzzlea, ezkutaketa eta memoria eta azkartasun jokoak.

EDUKIAK:

Iñaki Sanz Azkue biologoa

IKUSPEGI PEDAGOGIKOA:

Lore Erriondo EHUKo irakaslea


MARRAZKIAK:

Eñaut Aiertzagüena

Eskaerak: azoka.argia.eus / (+34) 943 37 15 45

 ARGIA

ISBN zenbakia



Euskarazko liburuek zein leku dute nazioarteko sisteman?

Liburu (ia) guztiek daramate, kontraportadan eta barneko orrietan, ISBN zenbakia. Zer da baina? Zertarako balio du? ISBN zenbakiaren historia, haren balioa eta funtzionamendua eta egun euskarazko liburuek sistema horren barruan duten lekua aztertzen ditu erreportaje honek.

 PERU IPARRAGIRRE

Liburuak ekoitzi eta banatzerako orduan ezinbesteko tresna bilakatu du da ISBNa. Ingeleseko siglak dira: *International Standard Book Number*. Liburuentzako zenbaki internazional estandarra da, eta (ia) edozein liburu hartuz gero kredituen orrialdean topatuko duzu, Lege Gordailuaren zenbakiarekin batera. Duen garrantzia gorabehera, ordea, gutxi izango du haren berri, zein funtzio betetzen dituen eta, ikusiko dugun bezala, zer gertatzen den euskarazko liburuekin.

ISBNak liburu baten edizio zehatz bat identifikatzen du, eta hari buruzko datuak biltzen ditu. Horrela, inbentarioak, eskaerak eta liburuei lotutako datuen kudeaketa izugarri sinplifikatzen du.

1965an, W.H. Smith Erresuma Batuko liburu-saltzaile handienak bi urteren buruan informatizatutako biltegi batera leku aldatzeko asmoa iragarri zuen. Horretarako, baina, enpresaren eskuetatik pasatzen ziren liburu guztientzako zenbakitze sistema estandar bat behar zuen. Ingalaterrako Editoreen

Elkarteko banaketa eta metodoen komitearit eta Erresuma Batuko liburu-merkatuari ere baliagarria izango zitzaien tresna hori sortzeko lanean hasi ziren aholkulari batzuk, eta 1966an *Standard Book Numbering* (SBN) liburuentzako zenbakitzen estandarraren sistema osatu zuten. Hurrengo urtean hasi ziren erabiltzen.

NAZIOARTEKO ESTANDARIZAZIOA

1966ko azaroan Berlinen egin zen liburuaren merkatuaren ikerketari eta





liburuaren sektorearen arrazionalizazioari eskainitako hirugarren konferentzian ere heldu zioten gaiari, eta liburuaren identifikaziorako zenbaki-sistema internacional bat ezartzeko beharrari eta egingarritasuna jarri zuten mahai-gainean. Esan bezala, ordurako Erresuma Batuko hainbat editore liburuaren eskaerak eta inbentarioak kudeatzeko informatika nola erabili aztertzen ari ziren. Horretarako, baina, ezinbestekoa zen argitaratutako artikulua bakoitzak identifikazio-zenbaki bana edukitzea eta identifikatze sistema hori ahal bezain orokortua izatea.

Horretan paper garrantzitsua bete zuen ISO gobernuz kanpoko erakundeak. 1947an sortua, Nazioarteko estandarizazioak garatzeaz arduratzen da; Genevan (Suitza) dago kokatuta. Hain zuzen ere, eremu tekniko eta ez tekniko guztietako estandarrak ezartzeaz arduratzen da, ingeniariaritzak elek-

trikoari eta elektronikoari dagozkionak kenduta –Nazioarteko Batzorde Elektroteknikoari dagozkio horiek–. Hain

Herrialdeen arteko merkataritza erraztea da nazioarteko estandarizazioaren helburua eta ondorioa

zuzen ere, neurketa unitateei, alfabeto eta transliterazioei, atal, material, gainazal, prozesu, tresna, probatzeko

metodo eta makinentzako zehaztapenei; eta zehaztapen horiek emateko moduak ere estandarizatzen ditu erakundeak. Nazioarteko estandarizazioaren helburu eta ondorioetako bat da nazioarteko merkataritza errazten duela, herrialde, enpresa eta erosleen arteko irizpide bateratuak emanez. Estandarizazio hori burura eramateko komite teknikoak ezartzen ditu ISOk, eta 46. komite teknikoak, Informazioa eta Dokumentazioa delakoak, 1966an lantalde bat osatu zuen, Erresuma Batuan garatutako SBN sistema maila internazionalen nola erabili aztertzeko.

1968an bilera bat egin zuten Danimarka, Frantzia, Alemania, Irlanda, Herbehereak, Norvegia, Erresuma Batua eta AEBetako ordezkariekin eta UNESCOko behatzaile batekin. Beste herrialde batzuek idatzizko ekarpenak egin zituzten. ISOko kide ziren herrialde guztiei eman zitzaizen bileraren on-

dorioen berri, eta beste bilera batzuk egin zituzten Berlinen eta Stockholmen 1969an. Prozesu horren ostean onartu zuten ISBN sistema, 1970ean, ISO 2108 estandarra bilakatuz.

Hainbat aldaketa izan ditu ISBNak hamarkada hauetan zehar. Nagusiena, audio-liburuak eta liburu elektronikoak agertzearekin batera horiek ere estandarren barruan hartzea, liburu fisikoez gain liburu-gisakoak ere ISBN zenbakiz hornitzeko aukera emanez. 2007an, bestalde, 10 zenbakikoa izatetik 13 zenbakikoa izatera igaro zen, eremu batzuetako zenbakiak amaitzen ari baitziren. Aldaketa horrek liburuen identifikazio sistema barra-kodeen *European Article Number* –EAN, Artikulu Europarren Zenbakia, gerora GS1 bilakatu dena– estandarrekin bateratzeko aukera eman zuen.

HONDAR ALEAK HONDARTZAN

ISBNak, beraz, liburu zehatz bati buruzko informazioa kodifikatzen du, modu unibokoan, gero informazio hori modu errazean kudeatu ahal izateko. Demagun Bernardo Atxagaren Obabakoak liburua eskuratu nahi dugula. Baina zein bertsio nahi dugu? Izan ere, izenburu berarekin hainbat hizkuntzatan argitaratu da liburu hori, eta argitaletxe batek ere edizio bat baino gehiago argitaratu ditu. 978-8475682181 zenbakia Erein argitaletxeak 1988an plazaratu zuen 402 orrialdeko edizioari dagokio (ISBN-10etik ISBN-13ra konbertsioa eginda), eta ez beste ezeini. Liburu beraren 2000. urteko edizio zuzendu eta eguneratuari, aldiz, 978-84-7568-824-4 zenbakia dagokio. Ez dira edizio berriak eta berrinpresioak nahasi behar. Hain zuzen ere, edizio berriek aldaketa nabarmenak izan behar dituzte edizio berri deitu ahal izateko.

Zergatik du garrantzia ia –edo erabat– oharkabea igarotzen den zifrakate horrek? Esan bezala, ohar bibliografiko deskribatzaile luzeak kudeatu beharra aurrezten du, lana, denbora eta akatsak –eta, beraz, soldatak– aurreztuz. Era berean, merkatuan erabiltzen diren katalogoak eta datu-base bibliografikoak modu automatikoa osatzeko eta eguneratzeko baliagarria da, eta baita datu-base horietan informazioa modu azkar eta errazean aurkitzekoa ere. Horregatik guztiatik, gaur egun, liburuen eskaerak eta banaketak ISBNari esker kudeatzen dira. Asko dira ekoizpen katean ISBNean oinarritzen



ISSN

ISBN zenbakia liburuentzat bada, ISSN zenbakia aldizkariarentzat eta argitalpen seriatuentzat da. International Standard Serial Number delakoa eramaten dute aldizkariak. 1971n onartu zen nazioarteko estandarra. Zortzi zenbaki ditu. Eusko Jaurlaritzak berriki eskuratu du ISSN zenbakiak jaulkitzeko eskumena.

LEGEA

ISBN eta ISSN zenbakiak ez dira nahitaezkoak, nahiz eta hainbat lurraldetan praktikan nahitaezkoa den, argitaratutako liburu eta aldizkariak liburu-dendetara banatu nahi izatekotan, bederen. Aipagarria da ISBN zenbakia ez zaiela salgaiak diren liburuei jartzen soilik, doan banatzen direnei ere jarri ohi zaie.

Lege Gordailuko zenbakia, aldiz, nahitaezkoa da argitalpen orotan.

diren prozesuak, eta dendetako liburuen kudeaketa sistema elektronikoa- rentzat ere elementu ezinbestekoa da. Hainbat aukera ematen ditu: liburu baten edizioen arteko salmentak konpara daitezke, edo argitaletxe baten liburuen artekoak, eta abar.

ZER ESAN NAHI DU ZENBAKI BAKOITZAK?

Bost zati ditu ISBN zenbaki batek. Lehen hiru zifrek aurrizkia osatzen dute, barra-kodeen sistemari dagozkio. 978 edo 979 izan daiteke, horiek baitira Bookland delakoari dagozkionak, barra-kodeen sisteman preseski liburuentzako sortutako “herrialdea”.

Hurrengo zifrak taldeari dagozkio. Zifra batetik bostera arteko luzera izan dezake zenbakiak. 84, esaterako, Espainiari dagokio, 2, aldiz, Frantsesari. Estatuak, herrialdeak edo eremu linguistikoak identifikatzen ditu taldearen zenbakiak. Taldeen zenbakiak ISBNaren Agentzia Internazionalak banatzen ditu.

Editorearen identifikazio zenbakia dator ondoren. Talde baten barruko argitaletxe bat edo marka editorial bat identifikatzen du. Luzera aldakorra du, zazpi zifra artekoa. Haren luzera editoreak argitaratzeko asmoa duen titulu kantitatearen arabera da. Gero eta zenbaki gehiago argitaratzeko asmoa eduki orduan eta identifikazio zenbaki laburragoa izango du argitaletxeak.



CONOR LAWLESS

Argitaletxe bakoitzak ISBN zenbakiaz kokatuta dagoen estatuan, herrialdean edo eremu linguistikoan arduratzen den instituzioari eskatu behar dio identifikazio zenbakia.

Azken-aurreko zifrek argitalpena identifikatzen dute, eta editoreak argitaratu asmo duen liburu kopuruaren arabera luzera du. Azkenik, zenbakia identifikatzeko kontrolerako zifra dago, aurreko zifra guztiak kontuan hartuz algoritmo baten bidez kalkulatzen dena.

ISBN zenbaki bat eskatzerako, beraz, editoreak dagokion agentziara jo behar du, eta zenbaki bakoitzari dagokion fitxa bete behar du. Fitxa horretan jasotzen dira liburuari buruzko informa-

zioa ematen duten metadatuak. Hauek dira: ISBN zenbakia bera, produktua-

ISBNak liburu baten edizio zehatz bat identifikatzen du, modu unibokoan

ren formatua, seriea (baldin badauka), izenburua, egilea, edizio kopurua,

testuaren hizkuntza, marka editoriala, editorea, herrialdea eta data, besteak beste.

EUSKAL ISBN ZENBAKIA?

Esan bezala, ISBN zenbakiez arduratzen den erakunde nagusi bat dago, baina sistemako talde bakoitzak zenbakiak jaulkitzen eta talde horretako argitalpenen inguruko informazioa kudeatzen duen erakunde bat du. Hiru talde mota daude, beraz, estatuei dagozkienak, herrialdeei dagozkienak eta hizkuntzei dagozkienak. Editore bakoitzak ezin du edozein taldetako zenbakia eskatu. Dagokion estatuko, herrialdeko edo hizkuntzako liburuaren zenbakiak kudeatzen dituenarengana jo behar du.

datuak. Euskarazko liburuen gehien-goia Espainiako Estatuan argitaratzen denez, horien gehiengoak 84 zenbakia darama, Espainiari dagokiona. Iparraldean argitaratzen direnek, aldiz, 2 zenbakia daramate, frantsesaren hizkuntza eremuari dagokiona. Hain zuzen ere, Belgikan, Kanadan eta Suitzan frantsesez argitaratzen diren liburuek ere 2 zenbakia daramate. Frantsesaz gain beste bi dira hizkuntza eremuak, ingelesa -1 edo 0 zenbakiz identifikatua eta alemana.

Arazoa da inor gutxik duela zenbaki horien eta zenbaki horien garrantziaren berri

Euskarazko liburuen kasuan, ez dirudi epe laburrean ISBN talde propio-rik izango dutenik, ez baitago gaiaren inguruko interes handirik. Duela hilabete batzuk Espainiako Gobernuak Eusko Jaurlaritzari eman beharreko eskumenen artean aipatzen ziren ISBNa eta ISSNa kudeatzeko eskuduntza. Azken berrien arabera, ordea, ISSN zenbakia kudeatzeko eskumena baizik ez du jaso Jaurlaritzak. Horren ostean arrazoi ekonomikoa ere egon liteke, ISBN zenbaki bakoitza erosi egin behar baita, eta urtero argitaratzen den liburu-kopurua ez da hutsala. Hala eta guztiz ere, dirudienek, eskumena eskuz aldatuta ere ez litzateke ISBN talde berri bat sortuko, baizik eta Espainiako zenbakia jaulkitzeko eskumena lortuko luke Jaurlaritzak.

Nolabait, .eus domeinuarekin pareka daiteke ISBNaren kontua Gorka Arrese editore aburuz. Aspalditik duen ametsa da euskarazko liburuek ISBN zenbaki propioa izan dezatela. Dioenez, zenbaki horiek berehalako identifikazioa ematen dute, Interneteko domeinuak ematen duen bezala. Arazoa da inor gutxik duela zenbaki horien eta duten garrantziaren berri. Egoitza Londresen duen ISBNaren agentzia Internazionalera jo beharko litzateke zuzenean, baina diplomazia kontuak ere sartuko lirake zuzenean.

Esan bezala, zenbaki horien atzean datu andana dago, datu-baseak, eta baita datu horiek kudeatzeko instituzioak. Euskarazko liburu guztien argitalpenak bateratuko lituzkeen datu-base bat balego arras erraztuko litzateke haien inguruko datuak biltzea eta aztertzea, egun Espainiako Liburutegi Nazionalarenak eta Frantziakoarenak aztertzen ibili behar baita.

Are, Espainiako Estatuko ISBN zenbaki bat eskatzerakoan hizkuntzaren eremua nahi gabe hutsik utziz gero automatikoki gaztelaniazko liburutzat hartzen du sistemak, eta ez litzateke lehen aldia izango euskarazko liburuak gaztelaniazkoak direla agertuko balitz datu-baseetan. ISBNaren datuekin, gainera, askotariko datu-baseak osatzen dira, automatikoki. Liburutegi eta liburu-saltzaileei dagozkienak eta beselako artxibatze eta indexatzea egiten dutenak ere, eta horietan ere askotan galtzen dira euskarazko liburuak, batez ere haien gaztelaniazko ediziorik existitzen bada.

Idazleen, editoreen, liburuzairenen, saltzaileen eta irakurleen egunerokoan berebiziko garrantzia dute zenbakiok, eta ez da hutsala haien banaketa. Egunen batean euskarazko liburuek nazioarteko sistema horretan eremu propioa edukiko badute horretarako pausoak ematen hasi beharko da. ●

Izan ere, ez dago hizkuntza bakoitzeko talde bat, ezta herrialde bakoitzeko talde bat ere. Euskarazko liburuek, beraz, argitaletxea kokatuta dagoen lurraldearen arabera zenbakia daramate, eta dagozkien organoek kudeatzen dituzte haien inguruko

BABESLEA:



Lezoko
Unibertsitateko
Udala

UDAN EUSKARAZ 24/7

EMAGIN ELKARTEAREN GIDA BERRIA

*Eraso matxisten aurrean,
ardura hartze kolektiboa*

Jaietan erabiltzen den *Erasotzaileak kanpora!* lema nahikoa al da erasoaren egilea norbere kolektiboko kidea edota laguna denean? Emagin Elkarteak protokolo propio bat proposatu du talde barneko eraso matxistak kudeatzeko, eraldaketa eta minaren erreparazioa ardatz dituen. Erasoei aurre egiteaz gain, erasoei aurre hartzeko balio du protokolo hori osatzeak. Bide horretan, gida bat kaleratu du Emaginek eta baliabideak eman kolektibo bakoitzak bere protokoloa ontzeko; kide guztien inplikazioa ezinbestekotzat dute, eta gizonen zein emakumeen erantzukizuna gakotzat.

 LEIRE ARTOLA ARIN

Oso barneratuta dago indarkeria matxistarik ez dela onartzen inongo jaietan, eta feministen lanari esker erasoei aurre egiteko protokoloak martxan daude festa gehienetan. Gertutik ezagutu dute protokolo horien funtzionamendua Idoia Arraiza Zabalegik eta Idoia Trenor Zulaikak, Euskal Herriko Bilgune Feministan militatutakoak baitira. “Zenbat aldiz jarri dugu *Erasotzaileak kanpora!* pankartetan. Baina erasoak elkarte barruan denean, gure betiko kidea edo gure laguna denean, ez da hain erraza hori egitea. Horregatik bilatu genituen beste modu edo filosofiak,

eta esperientzien bidez ontzen joan gara justizia berrosatzailearen printzipioa oinarritzat duen protokoloa”, azaldu digute. Alegia, maiatzeko Larruneko protagonisten bide beretik, eredu ez punitibista eta eraldatzailean sinesten dute, elkarrizketarako tarte irekita; betiere, zilegi iruditzen zaie eraso baten aurrean ematen den erantzun oro, “baina beste gauza bat da elkarte gisa egin beharreko prozesua”.


Arraiza Emagin Elkarteko koordinatzailea da eta Trenor Bertsozale Elkartekoa, eta ordu mordoa eman dute hausnartzen Emaginek kaleratu berri

duen *Elkarte eta kolektiboetan eraso matxisten kudeaketarako protokoloak egiteko gidaren* gainean. Argi dute gida hori proposamen bat besterik ez dela, tresna bat, eta asko dagoela egiteko: “Zaila da, pertsonen bizitzekin eta emozioekin ari garelako; baina bidea egiten ari gara, hori da inportanteena”. Arraizak positiboki baloratu du kolektiboek gero eta interes gehiago izatea indarkeria matxistaren auzian, eta elkarte oro animatu du Emaginen gida erabiltzera, prebentzio gisa. “Askok laguntza eskatzen digute jada erasoaren bat egon denean, beharra dagoenean, baina garrantzitsua da aurretik lanketa egitea”.

Trenorrek oroitarazten duenez, matxismoa egon, beti dago, arrazismoa eta patriarkatuaren baitako beste zapalkuntzak dauden bezalaxe. “Nahiz eta konbentzitutak egon zure elkartean horrelakorik ez dela gertatuko, ez da errealitatea. Prest egon behar zara gertatu daitezkeelako eta gertatzen direlako”. Jarraibide batzuk taldean adostuta edukitzea nahiz terminologia landuta izatea garrantzitsua dela dio: “Sute bat dagoenean denek dute pautak batzuk jarraitu beharra. Erasotzaileak kasuan ere behar dira”. Eta jarraibide horiek adostea den erantzukizuna izatea “gakoa” dela nabarmendu dute, bi arrazoi direla medio. Batetik, erasoaren kudeaketaren karga soilik feministen gain

NON KOKATU BAKOITZA?

Elkarte bakoitzak protokoloa osatzerakoan izozmendiaren barruan kokatu behar ditu identifikatutako erasoak, larritasunaren arabera



ez uzteko eta, bestetik, protokolo horiek errealagoak eta egingarriagoak izateko, gizonak zein emakumeek ontzat emandakoak eta, hortaz, denek errespetatu beharrekoak. Halaber, protokoloa kolektiboko partaide guztiek onartzen dutenean, jada bi helburu nagusi betetzea posible izango dela diote: emakumeek babes handiagoa sentituko dute eta gizonak "tentu gehiagorekin" ibiltzera bultzatuko ditu.

Gidak baliabide praktikoak eskaintzen ditu protokoloa era parte hartzailean egiteko, kolektibo bakoitzari egokituta; tresna horiek erabili ditu, besteak beste, Bertsozale Elkartek, Emagin aholkularitzapean. Trenorrek eskertu du protokoloa osatzeak talde barruan eragin duen eztabaida eta gogoeta, eta indarkeria matxistari buruz partaide guztiek lanketa egiteko izan duten aukera. Halere, onartzen du "oso

zaila" dela teoria praktikara pasatzean agertzen diren kontraesanak kudeatzea, eta kanpo aholkularitza beharrezko laguntzat dauka. Arrazak ere beldur hori du, ea taldeak ez ote dauden prest barne gatazkak euren kabuz kudeatzeko: "Ikusita Euskal Herrian zer kultura emozionaletik eta militantetik gatozen, oso arrazionala eta gogorra izan dena, uste dugu oraindik oso berde gaudela, nahiz eta aurrerapausoak eman diren". Aipatu du kolektiboek gehiago inbertitu beharko luketeela kanpo aholkularitza kontratatzen.

"Euskal Herrian izan dugun kultura militante eta emozionalagatik, berde gaude barne gatazken kudeaketan"

Idoia Arraiza
Emagin Elkartea

NONDIK HASI?

Ezer baino lehen, Emagin gidak gogorarazten du formazioa ezinbestekoa dela: lanketa feminista, maskulinitateari buruzko tailerrak... Kontzientzia eta sensibilizazio feminista izatea da lehen pausua, eta horren gainean erabakiko da eraso matxista zer den eta nola jokatu kasu bakoitzean. Hasteko, erasoak identifikatuko dira talde lanean: "Post-it-ak banatuko dizkiegu parte hartzaileei eta kide bakoitzak eraso ezberdinak idatziko ditu (erasoak, diskriminazio egoerak, gutxiespenak, eta abar)", dio gida praktikoa. Gero, *post-it* horiek izozmendi baten marrazkian itsatsiko dira, erasoen intentsitatearen arabera: larritasun handienekoetatik (goian) txikienekoetara (behean). Hiru, lau edo bost multzotan sailkatuko dira, eta ondoren erabakiko da multzo bakoitzari zein neurri eta prozedura esleitu, larritasunaren arabera.

Ariketa horretan gerta liteke gizonen batek ez onartzea erasoak denik beste norbaitek proposatutako kasua? Bada, Arraizek eta Trenorrek argitu dutenez,

kontrakoa gertatzen da maiz: “Askotan gizonak izaten dira erradikalenak, edo zigor gehien eskatzen dutenak”. Ez da kasualitatea jarrera hori; Arraizen esanetan, “gizonek oso modu agerikoan eta publikoki adierazteko beharra dute feministak direla”. Trenorrek ere uste du gizonen beharra dela eraso egin duenarengandik bereiztea, eta “oso kontra” daudela esatea. “Nahiz eta lagunak izan, bizi osoan batera egon, agian portaera matxisten konplize izan... ez dute harekin identifikatzerik nahi, eta batzuetan era inkontzientean hartzen dute jarrera hori”.

ERASOTZAILEA EDO ERASOA EGIN DUENA

Emaginaren aurreko gidetan ez bezala, oraingoan *erasotzailea* eta *erasotua* edo *biktima* hitzak erabili ordez *erasoa egin duena* eta *erasoa jasan duena* terminoak aukeratu dituzte. Besteak beste, etiketen zama ez erortzeko. “Erasotzaile izateak identitate bat ematen dizu, eta badirudi hori zarela 24 orduz, jaio zinenetik hiltzen zaren arte. Ez dugu hori defendatzen. Erasoa bat egin duzu, baina ez du esan nahi beti egin behar duzunik; eraldaketarako gaitasuna handiago da”. Trenorrek *biktima* etiketari dagokiona azaldu du: “Batzuetan eraso bat jasan duten emakumeak oso ahalgunduta daude eta ez die aparteko ondorioak eragiten, batik batik larritasun baxueneko erasoez ari bagara. Baina biktima etiketa jartzen badiegu pisua jartzen dugu haien gainean”.

Beste ñabardura bat gehitu dute: gizonak errazago onartzen dute eraso bat egin dutela, erasotzaileak direla baino. Halere, Trenorrek ikusten du gizonak kosta egiten zaiela onartzea egin duten mina. Izan ere, “gutxieneko kontzientzia feminista” dutenek beren burua erasoen egile gisa ikusten dutenean “erresistentzia pila bat” pizten zaizkie. “Zeren zeure buruarekin ariketa egin behar baituzu, onartzeko min bat eragin duzula”. Orain arte ikusi dutenez, hori da zailena: onartzea. Kasuren batean gertatu zaie gizonak onartzen duela emakumea erasotua sentitu izana, ez, ordea, “erasorik” egin izana. Erasoa hitza da, beraz, erresistentzia sortzen duena. Bien esanetan, agian eraginkorragoa izan liteke intentsitate baxuagoko erasoetan terminologia ezberdina erabiltzea, esaterako, *jarrera matxista*. “Seguruenik errazago onartuko lukete egindakoa”.

*“Nahiz eta konbentziturata
egon zure elkartearen
ez dela eraso
matxistarik gertatuko,
ez da errealitatea”*

Idoia Trenor
Bertsozale Elkartea

HERIOTZA SOZIALA SAIHESTU

Lehenengo bidetik, biek ikusi izan dute gizonen “jarrera oldarkorra” eraso egin duten beste gizonen aurrean. “Benetako boikotak ere ikusi ditugu, bereziki gizonen partetik, eta horrek ez du laguntzen helburua betetzen”. Hau da, he-

riotza sozialak edo bazterketak prozesu eraldatzailea zapuztuko du; aurreikus- ten da justizia berrosatzailearen bidez eraso egin duena kolektibora itzultzea (noizbait joan bada), prozesu bat egin ostean eta okerrak zuzendutakoan, “birgizarteratze feminista” bat egiteko. Baina, erasoaren egilea diskriminatuz gero, ezingo du prozesurik egin, ez hark ezta kolektiboak berak ere. “Nahi duguna da kolektibo osoak lanketa bat egitea eta gizonak ere pentsatzea ea orain arte nola lagundu duen eraso hori gertatzeko: nola izan diren konplize, zer landu behar duen norberak...”. Aitortu dute min asko azaleratzen direla, eta batzuetan beste gizonak konturatzen direla eurek noizbait eraso matxistaren bat egin dutela, eta erabakitzen dute arazoa lantzen hastea, tailerren bidez edota terapiaren bidez, esaterako: “Batzuetan eskertu egiten dute, aukera gisa hartu, nahiz eta mingarria izan”. Prozesu horrek taldeko gizon guztiak interpelatzen ditu, eta denek inplikatu behar dute benetan funtziona dezan.

PROZESU BERROSATZAILEAREN URRATSAK

1 / Aldez aurretik: prebentzioa, protokoloaren sozializazioaren beharra

2 / Protokoloaren aktibazioa:

- Erasoren inguruan iritsi zaigun informazioa aztertu
- Erasoren nolakotasuna definitzeko bi irizpide nagusi: erasoen sailkapena eta testuinguruari lotutako faktoreak
- Erasoa jasan duenarengana gerturatzea
- Erasoa egin duenarekin hitz egin

3 / Kudeaketaren urratsak eta neurriak: erasotua izan denarekin, eraso egin duenarekin hitzarmena adostu eta komunitatearekin landu.

4 / Jarraipena alde guztiekin

5 / Itxiera eta ebaluazioa

Eta norbaitek uste badu eraso egin duena benetan kolektibotik bota behar dela eta jardueretatik baztertu? “Ideia horrek mahai gainean jarraitzen du”, baieztatu dute. Hau da, kasu kasu erabakiko da pertsona hori kolektiboan jarraitzeko prest dagoen edo ez. Kasu ugaritan puntu honek gatazkak sortzen dituela esan digute: eman dezagun prozesua egin duela eta taldera itzultzeko prest dagoela, baina taldekideren batek ez duela onartzen harekin espazioa konpartitzea. “Oso ohikoa da hori, horregatik da hain inportantea kasuak kudeatuko dituen lan talde txiki bat egotea, eta haiek erabakitzen dutenaren arabera pausoak ematea”.

Izan ere, gida honek aukera ematen du lan talde bat eratzeko, zeina arduratu den eraso matxista bat gertatzen den bakoitzean prozesua abiatzeaz, jarraipena egiteaz eta itxiera bat emateaz hiru aldeekin: eraso egin duena, eraso jasan duena eta komunitatea. Beraz, ika-mika lan talde horren partaideekin egon ohi da, jende askok ez dituelako ulertzen “ordu luzez landu eta eztabaidatu ostean” talde horrek erabakitakoak. Komunitatearekin talka handiak sortzen dira, eta harreman pertsonal asko “pikutara” joan daitezke. Trenorrek azpimarratu du ezinbestekoa dela talde horrek “sinesgarritasuna eta zilegitasuna” izatea; estrategikoki hautatutako pertsonak izango dira.

“Paperean oso erraza da dena, baina errealtatean askoz zailagoa da. Oso zaila da kasu batean denak pozik gertzea egindakoarekin”. Trenorrek dio “ezinezkoa” dela, eta energia asko xurgatzen duela lan taldean egoteak: “Toki batetik edo bestetik iritsiko zaizu zer bait, eta hori sostengatzea eta pertsonalki ez hartzea oso zaila da. Horregatik inportantea da taldeetan egotea, oso nekagarria delako”. Besteak beste, gertatu izan zaie prozesu bat bertan behera utzi behar izatea, eskatutakoa errespetatu ez duelako eraso egin duenak. “Feminista bezala horrelakoetan sententzioa da gaizki egiten ari zarela”.

NORK IZAN BEHAR DU ERASOAREN BERRI?

Protokoloaren hasieratik argi geratzen da lehentasuna duela eraso jasan duenaren babesak eta erreparazioak. Beraz, lan-taldeak hartzen du ardura haren beharrak entzun eta erantzuteko. Adibidez, berari galdetuko zaio ea nahi duen komunitateak informazio hori izatea ala



“Zertarako balio dizu gertatukoa jakiteak? Zer da, morboa? Zure segurtasuna zalantzan jartzen du?”

Idoia Arraiza
Emagin Elkarte

ez, eta zein neurri hartzea nahi duen. “Baina ez du esan nahi bere behar edo eskaera guztiak beteko dituzunik. Bide bat egin behar duzu, eta askotan hor minak eta amorruek daude. Zuri mina egin dizunari mina eman nahi diozu”, ulertzen du Trenorrek. Horregatik, aitoritzen du askotan zaila dela justizia feministan mantentzea. Alegia, tripek esaten dietenetik harago joan behar du taldeak, eta paperean jarritakoa betetzen saiatu. Protokoloa eratzeko denen artean erabakitako neurri zehatzak aplikatuko zaizkio eraso egin duenari, nahiz eta momentu askotan neurri zorrotzagoak (edo arinagoak) hartzeko gogoia izan, bai eraso jasan duenak bai komunitateak.

Horren adibide da zurrumurruak zabaltzearena. Eraso jasan duenaren nahietatik abiatuta, lan taldeak eraba-

kiko du zer komeni den kontatzea eta zer ez. Eta komunitateak ardura hartu behar du informaziorik ez zabaltzeko, nahiz eta alboko lagunarekin elkartrukatzeak nahia izan. “Zurrumurruak kaltea besterik ez dio eragiten komunitateari; moztu erroten”, irmo Trenorrek. Erasoaren berri ez ematearen aldekoak dira biak, betiere bermatuta egonez gero denon segurtasuna eta lasaitasuna. Arraizek galdetzen du zertarako nahi den jakin gertatutakoa: “Zertarako balio dizu horrek? Zer da, morboa? Zure segurtasuna zalantza jartzen dizu?”. Prozesua behar bezala egiteko, informazio horren kudeaketa soilik lan taldearen esku egon behar dela iritziz dute.

GIZONEN TXANDA DA

Prozesu honetan guztian gizon feministen “behar izugarria” dagoela ohartarazi dute. Alegia, kontzientzia hartu duten gizonen beste gizon batzuekin lanketa egiteko beharra dagoela. “Emakumeek hartu dugu kontzientzia eta gero eta ahalduz handiagoa dugu. Orain gizonen txanda da, kontzientzia hartu behar du, euren gizontasunari buruz hausnartu, eta lanketa feministak egin”. Gainera, erasoak kudeatzeaz arduratzen diren lan taldeetan gizon inplikatuak egotearen beharra azpimarratu dute, zeren “zilegitasun handiagoa” baitute gizonen gizonen helarazitako mezuek. Baina prest ote daude Euskal Herriko elkarteetako gizonak pauso hori emateko? Eta emakumeak? Emaginek proposatutako gidak, behintzat, eztabaidarako eta hausnarketarako tarteak irekitzen du. ●

MATRIX

Berehalako mezularitza libre eta deszentralizatua

Gaur egun Internetek duen arazorik handienetakoa da ia dena enpresa erraldoi gutxi batzuegan zentralizatuta dagoela. Sarritan hitz egin dut horretaz, *Elhuyar* aldizkariako *Mundu digitala* atalean zein *Sarean.eus* agerkari digital honetan.

 IGOR LETURIA / **sarean.eus**

Artikulu hau *Sarean.eus*-ek argitaratu du eta CC by-sa lizentziari esker ekarri dugu.

Zentralizazio horren arazoaz eta deszentralizazioaren beharraz egin nuen sarreratxo bat militantzia digi-taleko nire printzipioak azaldu nituen artikuluan eta xeheago aztertu deszentralizazioari eskainitako beste batean. Bada, gaurkoan deszentralizazioaren gaian sakondu nahi dut baina komunikaziorako tresnen eta, zehazkiago, berehalako mezularitzaren gaiari helduta, eta honen adibide den Matrix tresna aurkeztu.

KOMUNIKAZIORAKO TRESNEN ZENTRALIZAZIOA

Argi dago azken urteotan Internet bidezko komunikazioetan zentralizazio izugarria eman dela, hau da, komunikazio horiek hornitzaile gutxi batzuen bitartez egitera pasatu gara, horrek dakartzan arazo guztiekin: dependentzia, kontrola, aberastasunaren pilaketa... Ohitu egin gara eta ematen du ezin duela bestela izan, baina oso oker dago horrela pentsatzen duena: ez du zertan horrela izan, ez zen horrela duela gutxi arte, eta badaude alternatibak.

Hastapenetatik eta ia-ia atzo arte, komunikazio digitala ez da zentralizatua egon. Komunikazio protokoloak estandarrik izan ohi ziren, hornitzaile ezberdin ugari zeuden eta kontu batekin zein besterekin izan elkarrekin komunikatzea

posible zen. Horien adibide dira telefono mugikorra, SMSa edota posta elektronikoa. Euskalteko bezeroek Movistar-ekoei dei diezaiekete, edo Gmail dutenek Hotmail dutenei idatzi.

Baina ondo dakigunez, azken urteotan tresna horien erabilera behera joan da eta berehalako mezularitzak ordezkatu ditu. Eta berehalako mezularitzan erabiltzen diren tresnak zentralizatuak dira. Tresna edo zerbitzu bakoitzak protokolo propio bat erabiltzen du eta zerbitzu beraren bezeroekin soilik komunikatzeko balio du. Eta helburua ahalik eta jende gehienarekin komunikatu ahal izatea denez, azkenean zerbitzuetako bat gailentzen joaten da eta monopolioa lortzen du, aipatutako dependentzia, kontrola eta aberastasuna lortuz. Horren adibide garbia Whatsapp da. Pentsa, munduko (edo behintzat Mendebaldean esaten zaien herrialdeetako eta beste askotako) jendearen komunikazio guztiak enpresa horren esku daude!

Jende asko badago konturatuta Whatsapp-ek duen botere horretaz eta gainera atzean dagoen enpresa Facebook izanik, alternatibak bilatzen dizkiote. Askok Telegram-era pasatu ziren, behintzat AEBetako enpresa bat ez delako eta app-a software librea delako. Beste batzuk Signal-era, pribatutasuna gehiago babesten

duelakoan. Baina horiek denek ere arazo bera dute: zerbitzu zentralizatuak dira, komunikazio guztiak beraiekin zerbitzarietatik pasatzen dira eta enpresa bereko erabiltzaileen artean komunikatzeko soilik balio dute. Azkenean horietakoren batek jendeak Whatsapp uztea eta merkatuan gailentzea lortuko balu, arazo bera izango genuke berriarekin.

ALTERNATIBA DESZENTRALIZATUA: MATRIX

Zorionez, badaude berehalako mezularitzarako aukera deszentralizatuak. Ezagunena eta arrakastatsuenak (uler bedi arrakastarena termino erlatibotatik), ziurrenik, Matrix izango da. Beraiekin webgunean dioten bezala, Matrix.org izeneko irabazi asmorik gabeko fundazioak bultzatzen duen proiektua da Matrix. Denbora errealeko komunikazio seguru eta deszentralizatuak aurrera eramateko protokolo estandar ireki bat definitzen dute (zerbitzari-bezero eta zerbitzari-zerbitzari arteko komunikazioekin) eta berau inplementatzeko zerbitzarien zein bezeroen aldeko programak eta SDK-k garatzen dituzte software librean. Matrix-ek mezularitza zein audio- edo bideo-deiak egitea ahalbidetzen du, muturretik muturrerako zifratzearekin.

Bikaina, ezta? Eta nola has naiteke Matrix erabiltzen? Bada, berehalako mezularitzako zerbitzu guztietan bezala, telefonoan app bat instalatu behar duzu, baina besteetan ez bezala, ez dago app bakar ofizial bat. Protokolo irekia denez, bezero software ugari dago (zerrendan ikus daitekeen bezala, telefono mugikorreko app-ez gain ordenagailuan instalatutako programen bidez ere erabil daiteke, edo webgune batzuetan ere bai), ezagunena Element izanik.

Whatsapp, Telegram, Signal edo Discord inoiz erabili baduzu, badakizu instalatu ostean telefono zenbakia ematea nahikoa duzula erabiltzen hasteko. Hori izango da nolabait zure kontuaren identifikadorea eta horren bitartez aurkituko zaituzte. Matrix-en, aldiz, bi pauso eman behar dira. Lehenbizi, zure hornitzaile izango den zerbitzaria edo nodoa aukeratu behar duzu. Esan dugunez, protokolo deszentralizatua da Matrix eta zerbitzari edo nodo ugari daude zerbitzua eskaintzeko. Hauetako edozeinetan ireki deza-kegu kontu bat eta nodo horretako zein beste edozeinetako erabiltzaile guztiekin komunikatu gaitezke. Ondoren, gure kontuaren izena aukeratu beharko dugu (zerbitzari horretan inork ez duen bat). Matrix sareko gure kontuaren izena edo identifikadorea aukeratutako izenak eta hornitzailearen domeinuak osatuko dute, e-mail kontu baten antzera.

Eta zein nodo edo zerbitzari daude aukeratzeko? Nodorik handiena Matrix.org fundazioak berak mantentzen du, eta hain handia izatearen arrazoia da Element eta beste bezero gehienek defektuz hori eskaintzen dutelako, baina askoz gehiago daude eta deszentralizazioaren mesedetan beste batzuen artean banatzea komeni da. Bestalde, protokoloa irekia denez, zerbitzariko software asko dago software librean eta edonork muntatu ditzake nodo berriak, adibidez Matrix.org erakundeak berak mantendutako Synapse softwarea oso erraz instalatzen da. Pentsatzekoa da (eta espero dezagun hala izatea) nodo askoz gehiago agertzen joango direla, txikiagoak, lokalak, pribatuak... E-mailarekin (lehen) bezala, Matrix nodoak jarri beharko lituzkete martxan enpresek eta elkarteek eta kontuak eskaini euren langile eta bazkideei. Berdin maila ezberdinetako administrazioek euren herritarrentzat. Edota, zergatik ez, lagun talde edota familietan. Nik neuk Matrix zerbitzari bat jarrita dut neure zerbitzari batean domeinu propioare-

kin; familia-kook kontu bana daukagu eta gure artean komunikatzeko erabiltzen dugu, aldi berean munduko beste edozein Matrix erabiltzailearekin komunikatzeko baliatu daitekeelarik.

Dena abantaila eta gauza onak direla dirudi, beraz. Baina badago arazo bat, handia, eta ez dena berez Matrix-en errua: oso erabiltzaile gutxi dituela. Esan dudanean familiako Matrix zerbitzariak balio digula gure artean egiteaz gain munduko beste edozein Matrix erabiltzailearekin komunikatzeko, jende guzti hori oso jende gutxi da. Nire kasuan, familiaz gain dudak kontaktu bakarra da Matrix kontu bat irekitzeko konbentzitu nuen lagun bat, eta hiru talde jarraitzen ditut Matrix-en daudenak (Librezale, Hezkuntzan ere Librezale eta Software Libre Zalentzak). Jendearekin komunikatzeko baliu duen tresna batek bere zentzu guztia galtzen du ia inork ez badu erabiltzen eta oso jende gutxiarekin besterik ezin bagara komunikatu. Apurka-apurka erabiltzaileak lortu behar dira gero eta praktikoa goa izateko eta kopuru kritiko bat lortuta gupril zoroa hausteko. Ea ba...


AMAITU AURRETIK, BI OHAR

Matrix ez da berehalako mezularitzarako dagoen protokolo edo zerbitzu deszentralizatu eta libre bakarra, gehiago badaude. XMPP, adibidez, Matrix baino lehenagokoa da; garai batean dezente erabiltzen zen Linux munduan (Jabber izena zuen, Pidgin bezero programak erabiltzen zuen), baina orain atzean geratu dela dirudi. Edozein modutan, ez dut arrazoi berezirik Matrix aukeratzeko XMPPren ordeztu eta hautua ez da ezagutza sakonean oinarritua. Nire zerbitzari propioan berehalako mezularitza zerbitzari bat instalatu behar nuen garaian, lagun batek berau aipatu zidan, eta gainera instalatzeko XMPP baino errazagoa iruditu zitzaidan, besterik ez. Orain, artikulua idazterakoan, Matrix aukeratu

dut hobeto ezagutzen dudalako eta, esan bezala, zabalduago dagoen inpresioa dudalako, ez besterik.

Azkenaldian ari naiz irakurtzen Matrix-en aurkako hainbat gauza: Matrix.org-i informazioa bidaltzen zaiola, sortzaileen eta Israelen arteko loturak, pribatutasuna ez duela behar bezainbat gordetzen... Niri oso arraroak egiten zaizkit esaten diren horiek, dena software librean baitago eta ikus baitaiteke zer egiten duen, eta erreferentziatzeko ditudan zenbait proiektu librekin erabiltzen jarraitzen dutelako. Konspiranoia itxura dute, edo proiektu arerioen desinformazio saiakerak. Baina onartu behar dut ez dudala gaian asko ikertu. Hala ere, artikulua erekin aurrera egin nuen. Beste norbaitek informazio gehiago badu kontrako argudioen inguruan, erantzunetan komentatu dezala, eta behintzat balio beza artikulua eztabaida pizteko, denon artean gehiago jakiteko eta, gauza txar horiek benetakoak badira, ezagutzarazteko. ●





Lemoiz eta Superphénix gelditu!



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**


Bilbo, 1977ko uztailaren 14a. 200.000 pertsona bildu ziren Lemoizeko zentral nuklearraren proiektua geldiarazi zezaten eskatzeko. Manifestazioa baimenduta zegoen eta ez zen inolako gorabeherarik izan. Gaueko bederatzietan, manifestazioaren burua Zabalburura iritsi zenean, oraindik milaka batzuk mugitzeke zeuden abiapuntuan. Antolatzaleek testu bat irakurri zuten Lemoizeko lanak berehala gelditzeko, Tuteran zentral bat egiteko baimena ukatzeko eta euskal kostalde nuklearraren proiektua bertan behera uzteko eskatuz.

Bilbokoa ez zen kasu bakana, mugimendu antinuklearra pil-pilean baitzegoen Europan, baina han bildutako jendetzari eta kontsentsu sozialari esker, Lemoizko zentralaren aurkako mugimendua erreferente bihurtu zen. Urtebete lehenago Europako mugimendu antinuklearraren mugarri nagusia Frantziako Isèren zegoen, Creys-Malvilleko Superphénix zentrolean. Haren lekukoa hartu zuen Lemoizek.

Pierre Messmer lehen ministroak 1974an aurkeztu zuen Superphénix proiektua, “munduko super-erreaktore ahaltsuena”. 1976an jarri zuten martxan Creys-Malvillen eta uda hartan bertan 20.000 lagun inguru bildu ziren zentrala geldiarazi zezaten. Hurrengo udan askoz ere jende gehiago bilduko zen. Bilboko manifestazioaren arrakastak hauspotuta, aste pare bat geroago, 1977ko uztailaren



Ezkerrean, manifestazio antinuklear jendetsua Bilbon, 1977ko uztailaren. Eskuinean, Vital Michalon, bi aste geroago Frantziako manifestazio antinuklear batean poliziak hildako ekologista.



31n, Europa osotik joandako 60.000 lagun bildu ziren Nazioarteko Martxa Antinuklearrean. Baina agerraldia ez zegoen baimenduta. Frantziako Gobernuak zentralera hurbiltzea debekatu zien herritarrei eta 5.000 CRS bidali zituen agindua bete zezaten. Poliziak gogor eraso zituen manifestariak, besteak beste, granadak erabiliz. Ehunka lagun zauritu zituzten, eta granada horietako baten eztandak birrikak leherrarazi zizkion Vital Michalon 31 urteko fisika irakasleari. Poliziaren lehen txostenaren arabera, bihotzekoak jota hil zen.

Creys-Malvilleko zentrala ez zuten geldiarazi: 1997a arte egon zen martxan.

Eta Vital Michalonon gorpuari egindako autopsiak benetako kausa agerian utzi arren, justizia administrazioak kasua artxibatu zuen inolako erantzukizunik eskatu gabe.

Gurean, bi urte geroago, José Martínez Salas guardia zibilak Gladys del Estal ekologista tiroz hil zuen Tuteran, nuklearren aurkako ekitaldi batean. Hura epaitu zuten, baina gutxieneko zigorra ezarri zioten eta ez dirudi kartzelan zapaldu zuenik ere. Gainera, handik hilabete batzuetara Guardia Zibilararen Merituaren gurutzea eman zioten, eta hamar urte geroago meritu mitarraren beste domina bat. ●



BENGT OLOF ÅRADSSON

Bikingoak eta klima aldaketaren kezka

Rök harria Ostergötland-en dago, Suedia hegoaldean, eta munduko idazkun erruniko handiena da: 2,5 metro daude ikusgai eta beste metro bat lurtean gordeta. IX. mendeko testua ez dago osorik eta, gainera, hainbat idazkera nahasten ditu. Horregatik, ez da garbi irakurtzea lortu. Orain arte uste zen gertaera heroikoak jasotzen zituela, baina Suediako hiru unibertsitateko ikerlariek beste interpretazio bat

dute: bikingoak beldur ziren klima hoztuko zela. VI. mendeko hondamen klimatikoa memoria kolektiboan iltzaturik zegoen, eta hiru mende geroago, eguzki ekaitz baten, eklipse baten eta udako ezohiko tenperatura hotzen ondoren, uste zuten berriro hotzak, goseak eta heriotzak hartuko zituela: *Fimbulwinter* –munduaren amaieraren seinalea, mitologia eskandinaviarrean– zetorrela. ●

MEMEKA



Euskaraz ere egin daiteke barre

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Fenomeno bat da memeena, batez ere gazteen artean. Denetik dago, mundu bat da; baina egin al daiteke mundu horretan euskaraz? Bidea errazteko sortu du Memeka.eus plataforma lametzak –ARGIA, Antza eta Adurrekin batera Ametzagaiña Taldean dagoen komunikazio eta teknologia enpresak-. Beste hizkuntza askotan me-meak sortzeko plataformak ezagunak dira eta hemendik aurrera euskaraz sortzeko aukera ere badu nahi duenak. Dagoeneko martxan da eta oihartzun handia izaten ari da.

Erronka handia bilakatu da azken urteetan gazteak + teknologia + euskara formula egokia topatzea. Zerbait erreala. Erabilgarria. Erakargarria. Eguneraketak konstanteak diren honetan, memeak dira gazteen komunikazio klabeetan funtzionatzen duten zerbait eta hor euskaraz eta euskaldunek euskaraz leku bat izatea lortu nahian sortu

da Memeka.eus. Sartu du muturra eta badirudi egin duela bere lekutxoan pantaillen munduan.

NOLA ERABILI?

Argazki galeria bat topatuko du erabiltzaileak plataforman. Irudi batzuk meme giroan oso ezagunak direnak eta horri gehitu zaizkio euskal kulturari, euskal gizartearen, ezagunak edo erreferenteak izan daitezkeen beste hainbat. Topatu ditzakegu Idoia Torregarai, Txirrita, Goenkaleko Maria Luisa, *Irabazi arte* telesailako protagonistak, *Ataun of the death* filmeko eszenak edo *Waze-mank*-ekoak, besteak beste. Beti atzerriko erreferentziak erabili beharrean, aukera eskaini nahi zaio memegileari bertako pertsonaiak eta erreferentziak usatzeko. Erregistratu egin zaitezke edo ez. Erregistratuz gero, modu pribatuan zein publikoan erabili ahal izango dituzu memeak. Alegia, nahi izanez gero plata-

forman bertan publikoki zintzilikatzeko aukera izango duzu zuk sortutakoa, eta nahi ez baduzu modu pribatuan erabili, zure sareetan nahi duzunari soilik bidaltzeko. Erregistratzen ez bazara, aldiz, ez duzu zure memea publiko egiteko aukerarik izango.

Berrehun bat erabiltzaile ditu dagoeneko erregistratuta Memeka.eus plataformak eta publiko egindako memeen estiloari erreparatuta gehiengoak nerabeak direla ondorioztatu liteke. Dena den, plataformaren sortzaileek diote gehiago izango direla erregistratu gabeko erabiltzaileak, erregistratuak baino. Beraz, martxa politean doala dirudi.

Gustura daude egindako lanarekin, akaso *eureka!* esatea gehiegizkoa bada ere, gazteak + teknologia + euskara formula egokira gerturatu baitira, nerabe euskaldunek, modu natural batean, pantailetan euskaraz aritzeko berena egin baitute. ●

Ongi etorri Komunitatera!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



“Irakurle amorratua naizelako; proiektuari eta kazetaritza independenteari laguntza txiki bat emateko”

Getxoko Mikel

“Kazetaritza independentea eta bertakoa babesteko”

Villabonako Iñaki

“Euskarazko komunikabideak babesteko eta kalitatezko kazetaritza bultzatzeko”

Donostiako Itxaso

ASUNA, HI ETXERA KO!



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Bioaniztasuna boladan dagoen garai hauetan asunari (*Urtica dioica*) begiratu beharko genioke, lehenaz gain. Gaur bertan sartu naiz emanhar-tuan sendabelarren azti nafar batekin bere asun tintura eskuratzeko. Asunaren tintura horrek beti izan du sona: barruak eta odola garbitzen ditu, odolaren ibilia sustatu, mineralez hornitu, giltzaduren eta giharren hanturak barretu, dituen antihistaminiko naturalekin alergiak lasaitu. Tintura ondo dago, baina egoskina, xarabea edo platerean gordinek, saltsetan edo arin eginda har dezakegu. Bitamina, oligoelementu, proteina eta zer ez du, izan ere!

Asuna bizitza da, guretzat bezala beste animalia askorentzat ere bai; bioaniztasunaren erregina da. Asun sail bat toki ezin hobe da animalia saldo eder baten-tzat; bertan bizi, jan, ezkutatu eta ugaltzeko. Esaten da hogeita hamar animalia baino gehiago zuzenean asunari lotuta bizi direla, hura gabe ezin iraungo luke-te. Tartean gure baratzeetako tximeleta ikusgarrienetako batzuk: asun tximeleta, C-txuria, amiral gorria, karduetako vanessa eta hegazterren tximeleta. Era berean, ez da harritzekoa bere mutur guriko izerdi gozoa zurruputzen zorriak nahaspilan ikustea eta horien atzetik bere hondakinak jatera ilaran etortzen diren inurriak, baita bere kumeak janez



berdintzen diren amona mantangorriak ere. Barraskiloen kofradiak ere maite du asundia: zaleak dira baso-barraskiloa, barraskilo arrunta, Borgoinako barraskilo handia eta abar. Barraskiloa den tokian barea ez da urruti izaten. Asunaren gurgurioa, ipurtsardea eta era askotako armiarmak ere erraz topatuko dituzu, hara eta hona, asunaren ile erresumin-garrien artean lasai asko.

Tajuzko lupa batekin begiratu asunaren ile horiek. Azpian anpolutxo bat du, muturrean orratz zorrotz batekin. Orratz sartzen zaigunean anpuluha hautsi eta zaurian barruan duena isuriko du. Molotova ez da baina ederki erretzen, erresumintzen duen koktela askatzen du: txingurriek sortzen dutena bezalako azido formikoa eta gure garunak erabiltzen dituen serotonina, azetilkolina eta histamina, besteak beste...

Nola arraiio sortzen ote ditu asunak gure garunak erabiltzen dituen neurotransmisoreak? Asuna gure espeziea baino askoz lehenagokoa dela badakigu. Jakitea gauza bat da; eta ustea? Askok gorroto du, baina gu adina bada behintzat. Eta erabili dezagun osasunerako bezala baratzean: landatzerakoan zu-loan sartu, bero sapa bada landareari azpiak egin eta landarea indartzeko eta gaitzei eta izurriteei aurre egiteko asun ura edo minda egin.

Horiek dastatu dituen azalaren erremina sendatzeko, asunak hurbil izaten ditu mingarratzak edo uztaoak (*Rumex spp*) edota plantainak (*Plantago spp*); eman igurtzi on bat. Zenbaitek odolaren ibilia pizteko, asun sortaz zartadaka zigortzen du gorputza.

Asunak erretzen gaituenean neurotransmisoreak ematen dizkigu. Premian ikusten ote gaitu? ●

UDAKO AZOKA EKOLOGIKOAK



Babeslea:



Eusko Legebiltzarra eta Eusko Legebiltzarreko Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euzkadi



GOBIERNO VASCO



Europar Batasuna
Unión Europea
Fondos Europeos de Desarrollo Rural

EHKOLEKTIBOIA

UDAN ETXALDEETARA BISITAK,
AGROEKOLOGIA IRIZPIDEAK BERMATZEKO

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Badira urte pare bat EHKolektibotik Berme Sistema Parte-hartzailea (BSP) martxan jarri zutela, estatueta zigilu ofizialeetatik harago, agroekologiaren irizpideak kolektiboan adosteko eta kontrol eta zertifikazioen alternatiba herrikoia ezartzeko. “Kolektiboa sortu zenetik bazegoen gogoa gure nekazaritza txikia eta ekologikoa eredu industrialetik desberdintzeko”, azaldu du Itsasne Mendiberri Jaurena kolektiboko etxaldeetara egiten dituzten bisiten dinamizatzaileak. Izan ere, baserriarren ekoizpen irizpideak eta lan egiteko moduak etxalde bisitetan egiaztatzen dituzte duela bi urtetik. Ekainean hasi dira aurtengo etxalde bisita errondarekin, eta uztailean eta udazkenean horretan ariko dira, agroekologiaren bidean sakontzeko BSP modu kolektiboan garatuz.

EKOIZLEAK ETA
HERRITARRAK ESKUZ ESKU

Euskal Herriko zazpi lurraldeetako baserriar eta herritarrez osatutako kolektiboa da EHKO, eta agroekologia lantzea eta bultzatzea du helburu. Hastapenetik, garrantzia berezia eman diote nekazariez gain herritarrek ere elkarrekin parte aktibo izateari, elikadura osasuntsua eta eskuragarria jendarte osoaren erronka dela ulertuta. Bide horretan, aurtengo etxalde bisitetan ere herritarren parte hartzean arreta berezia jarri nahi izan dute. “Aurten herritarrek nahi ditugu bisita guztietan, horiek baitira gure lanari oihartzuna eta babesa emango diotenak”, diote bisiten inguruan zabalduko oharrean.



Interesa duenak ehkolektiboa.eus webgunean aurkituko du informazio guztia, eta baita bisiten data eta orduak eta izena emateko galdetegia ere.

Etxaldeetako bisitetan, bertako laborariez gain beste laborari batek eta herritar batek edo bik hartzen dute parte, eta kolektiboko dinamizatzaileak ere hor egoten dira laguntza emateko eta bilketa lana egiteko. “Galdetegi bat egiten da bisitetan, eta galderek lotura dute kolektiboko laborariek aurrez

zehaztu zituzten agroekologia irizpideekin”, dio dinamizatzaileak. Aurten, gainera, bisitak modu irekiagoan egin nahi dituzte, eta agroekologian interesa duen edozein herritar edo eragilerentzat ateak zabalik daudela azpimarratu du kideak. Azken batean, bisita horiek, irizpideak birpasatzeaz gain, baserriarrak eta herritarrek elkarrekin artean ezagutzeko aukera ere ematen baitute.

EKAINEAN 30 BISITA
BAINO GEHIAGO

Ekainean hasi zen etxalde bisiten kanpaina, eta honezkeroko 30 baino gehiago egin dituzte, tartean, Euskal Herriko zazpi lurraldeetako ekoizpen desberdinak bisitatuz: okin-zerealistak, haragi hazleak, esne behidunak, frutazainak, baratzezainak, erlezainak, artzainak... dene titak egon da.

Uztailean hamazazpi bat bisita izanen dira, eta abuztuan geldialdia egin ondoren,

irailetik aurrera beste 30 bat egingen dituzte. “EHKolektiboan sartzeko eskaera egin duten etxaldeak bisitatuko dira tartean; lehen onarpen komisio batek aztertzen zuen eskaera egin zuten horiek irizpideak betetzen ote zituzten. Orain, berriz, bisiten bidez egiten da hori”, azaldu du Mendiberri. Interesa duenak ehkolektiboa.eus webgunean aurkituko du informazio guztia, eta baita bisiten data eta orduak eta izena emateko galdetegia ere. ●

EUSKAL HERRIA ZUZENEAN FESTIBALA

Hamabi hilabete honen zain

Hamabi hilabete pasa ditugu EHZ festibalaren iazko edizioa gora eta behera. Ahaztezina izan zela, oasi bat pandemiaren erdian, eta zin egin genion duela urtebete geure buruari berriz ere etorriko ginela. Azkenik heldu da uztaila eta aste bukaerarekin batera, hamabi hilabete esperoan egon eta gero, iritsi ginen Irisarrira. Luzeagoak egin zitzaizkidan etxetik festibalerako ia hiru orduak, hala ere, urte osoa bera baino.

 IÑIGO SATRUSTEGI  EHZ

Hirugarren urtea dut EHZn eta oraindik ere, ez dut lortu garaiz ailegatzea hasierako kontzertuetarako. Lumik izan zuen ardura aurten festibalari hasiera emateko eta ikusteko zerrendan neukan. Jendeak gustura egon zela dio, eta eguzkiak majo jotzen zuen arren, hotz geratu zela giroa, estilo horretarako goizegi zela-koan-edo. Amorante ikusteko aukerarekin konformatzen hasia nintzen sarreraren bila gindoazen bitartean, baina hori ere galdu genuen.

Tantaka iritsi ziren festibalariak Euskal Herriko txoko guztietatik. Iazko aurpegi eta kuadrilla ezagun asko: Donostiako *raveroak*, Lakarrako Iñi-

go, zarauztarrak... Eta, nola ez, emandako matrakaren ondorioz gurekin ekarri ditugun beste lagun berri asko ere bai. Batzuk tragoak hartzen ari ziren furgoneten kanpalekuan besteek Quechua dendak muntatzen ziztuzten bitartean. Horra festibaletako bi aldeak: *furgesia* eta oihal etxeetako herri xumea. Eskerrak dutxetako ur hotzari, denak —dutxa hartzen dutenak, behitzat— berdin-berdin demokratikoki esnarazten baikaitu. Pozik nolanahi ere iluntzerako dena prest zutenek, ilara luzeak pilatzen hasi ziren eta txarteldegiaren aurrean eta ttanttoak lortzeko.

Delirium Tremensek ekin zion Penzeako kontzertuei, baina bitan argiak





huts egin eta ordubete luzez atzeratu zen kontzertua. Guk, beste askoren modura, afaltzeko probestu genuen, eguzkia pixkanaka mendien artean ezkutatzeko zela. Bueltan, labur aritu ziren Mutrikukoak. Hurrengo taldeak prestatu bitartean, *wawawa yupi ya yupi ye* izan gintuen Juanita Bananak dantzan.

Inork goiz erretiratu eta lotarako intentziorik bazuen, nekez lortuko zuen Fizt & Furiuz eta Sepultura taldeek Behe Nafarroako belardi hauetatik Cascante-rainoko herritarrak esnatzeko moduko orroekin. Rapak hartu zion lekukoa gero eta jendeak dantzarako zuen premia ase zuen. Barraren ertzetik mugitu ez zenik bazen, gustura horiek ere gerri-bueltarik gabe ere, ukondoa ongi iltzatuta. Sorpresa amaieran etorri zen Atoem bikote elektronikoarekin. Argi ilara biziakin pun-pun-pun baxuak aski ongi sartzen ziren goizeko ordu txikietan.

Afterraren azken hondarrak entzun ahal ziren aparkalekutik larunbat goizez. Askok haiekin batera esnatuko zen; beste asko, berriz, beroak itota. Bide batez, ez dakit kanpineko jendearengatik borondate onez-ala, baina aurten aparkalekura aldatu da gaua luzatu nahi dutenen festa inprobisatua. Inprobisatuarena zalantzan jarri daitekeen arren, bozgorailu nahiko dezentea baitzuten. Ostiral gogorrari larunbat are gogorragoa zetorkion atzetik, kartelean ez ezik, tenperaturari ere bai. Irisarrin ez zen eguzkiak plazan eta Pentzean kiskali ez zuenik, goiz-goizetik iluntzera. Izerdia, ura, garagardoa eta kalimotxoa eguzkitarako kremaz nahasirik.

Ødeiren kontzertua luzez EHZko oholtzetako onenetako bat izan zen

Festarako orduak berdin du eta ongietorria da datorren eskaintza oro herriko plazan. Hori da, akaso, niretzako jaialdiaren onena. Ordutegiei kasu handirik egin gabe, hurrengo zer zetorren, horra joaten ginen. Bertso musikatuak eguerdian, bertso dantzatuak bazkalosteant. Itzalpean babesten ziren asko rap emankizunaren bitartean. Ezin pentsatu Sarini zirkolariak zenbat sufrituko zuen eguzkia parez pare zuela, baina zer poz hartu, aldi berean, plazan zituen ikusleek animoekin eta txaloekin.



Pasadena gasteiztarrek ahal bezala eutsi zioten eguneko ordurik beroenean izan zen kontzertuaren tiroiari. Haien ondoren kontzertuak eta zerbezak bata bestearen atzetik kateatzen hasi ginen. *Zein da orain? Vulk? Ez, Odei izango da, aurrekoan esan zuten aurreratu egin zutela! Baina plazan Kilimak dago. Atzeratuta dabilta. Dj-a pintxatzen ari da, etorri. Hau bukatzean joango.* Ordutegien nahasmenduak bueltaka izan zituen batzuk hara-hona.

Larunbat arratsalde inguruan hasi zen igartzen egun bakarreko bisitarien etorrera. Ezinean ajearekin borrokan zebiltzanen eta fresko iritsi berri zirenen arteko talka. Begi-zulodunak eta kolonia usaindunak. Batzuk Pentzean Vulk eta Ezpalak entzuten. Besteak dantzari lepo betetako plazan Kilimaken eta Fri-goren erritmora.

EHZ ez da erdibitu ezin diren parrandazaleentzako festibala. Oro har, festibal bat bera ere ez, egia esan. Baina min ematen du Pentzetik plazara joatea, edo alderantziz, atzean utzita giroa. Siestarako tartea hartzeak berak ere kasik amorrua ematen du, zer galduko ere. Bi aste-ko jaialdia eta kafe asko beharko nituzke talde, antzerki eta emanaldi denak ikusi eta entzun ahal izateko.

Horra festibaleko bi aldeak: 'furgesia' eta oihal etxeetako herri xumea

Iluntzean, zerutik erortzen ziren errautsek txibatu ziguten ekitaldirako sua piztu berri zutela. *EHZ bidaia bat da, mundua aldatzeko bidaia bat*, irakurri zuen antolatzaileetako batek. Eta kanpotik hala bizi dugu behintzat: hegoaldera begira bizi garenontzako begiak zabaltzeko bidaia bat. Etxetik ia hiru orduko bidaia bat bai, baina bizi-tza osorako gordetzen den horietakoa. *Belaunaldiz-belaunaldi jaso eta eman den festibala, diruz bakarrik ezin dena ordaindu, laguntzaileen izerdiz baizik.*





Eta haien konpromisoari esker ospatu dugu 2022ko edizioa.

Espektatiba altuak ziren Ødeiren kontzerturako. *Terapia* lan berria jendetza baten aurrean aurkezteko unea heldu zen, eta hura izango zen, agian, zale gehien bildu zituen emanaldia. Hitz gutxitan kontatuta: txandal zuriz jantzi-rik Barroso, gu, berriz, harrituta estetikarekin, kontzertuaren eszenografiarekin hipnotizatuta erabat. Gustatzen ahal zaio jendeari rapa gehiago edo gutxiago, baina luzez EHZko oholtzetako onenetako bat izan zela esango nuke. Hitza jolas, *jaso ta eman, eman ta jaso*, aldarriak lehen lerrora, *Ipar Euskal Herria ez da sei-lau*, eta hilabete batzuk atzera utzita-lagun eta festibaleko antolatzaile zen Leireri omenaldia eginez: *kokinkerietan arituko den izarra*. Festibal handien aurrean, balioetan eta auzolanean oinarritzen diren eta artistei aukerak ematen dizkieten festibal txikien alde egin zuen amaiera aldera.

Merezi du aipatzea Japoniatik etorritako Txako Dja. Publikoaren sorpresarako euskarazko kantuek jarri zituen, nahiko tipikoak eta folklorikoak, hala ere. Kabitu

Irisarrin ez zen eguzkiak plazan eta Pentzean kiskali ez zuenik, goiz-goizetik iluntzera

ezinean zegoen aldamioren gainaldean dantzan eta inguratutakoen berotasunaren esker onez. Baina hori baino gehiago, aipatzekoa iruditzen zait, eta flipatzen utzi gintuena, Txakoren 180ºko bira, bigarren txanda batean elektronikara salto egin baitzuen, erregistroa erabat aldatu-rik. Merina Gris taldeak gorabeherak izan zituen, tarteka moztu egiten zen soinua,

baxu entzuten zitzaien baina buelta ematen jakin zuten amaieran. Sentsazio gazi-gozoz geratu ginen petatu zezaketela uste genuenok, baina haiek esaten duten moduan, *gehiegi kexatzen naiz*. Sentsazio arraroaz, halaber, sirena hotsak entzun eta bost minutuz, erasoen kontrako protokoloak jaialdia eten zutenean. Hala-koetan beti iruditzen izan zait arraroa, momentu tentso batzuen ostean, parrandan segitu behar izatea.

Batzuk gauzak jasotzen harrapatu ginituen igandean. Lanak behartuta, arratsaldean martxa egin behar izan zuten askok ezinbestean. Gaupasero batzuk ere baziren tabernako plazan gintonicak hartzen. Igandea, ordea, Iruñerriarena izan zen. Egunik onenean, Iruñeko talderik onenak, *Euskal Herriko festibalik onenaren* gune handia bete zuen eguerdian. Duela hiru urte, hasi berriak zirela, plazan jotzetik eszenatoki handian jotzera pasa dira Ibil Beditarrak. Oholtza handietara ez daudela ohituta esan izan dute baina irribarrez ikusi nituen han goitik. Bazkalostean Kinbonbok bi egunetako nekearen kontrako antidotoa eman zion Irisarrin geratzen zen erresistentziari.



Baina, zalantzarik gabe, asteburu oso-ko une gorena Iruñeko errege legítimo bakarrarekin batera heldu zen. Reymik berriz ere egin zuen. Lagunei beti esaten diet gurpil gaineko Djaren *pintxadak* onenak direla. Eta aurten ere, berriz egin zuen. Han egon zenak, badaki zertaz ari naizen.

Aurtengo EHZtik zerbait berezirik aipatu beharko banu, esango nuke inoizko mertxan-asmakizun onena izan zutela arrantzale txano marroia-rekin. Den-denak ezin modernoago eta, gainera, bereziki beroa izan zen eguraldiaren kontra praktikoa. Aurtengo aldaketa bereziki komentatua izan zen, era berean, komunen banaketa. Iaz ez bezala, komun lehor guztiak ziren KK Leku. Aldaketa onerako edo txarrerako izan den, brigada berdean aritu diren kideei galdetu beharko zaie. Eta azkenik, pantailak iragartzen zuen jolasa. Elkarri galdezka aritu ginen ea inork ulertu ote zuen zertan zen jolasa, hiru ttantoren truke garagardo *berezia* jasotzearen kontu hori.

Horiek dira nik bizi eta ikusitakoak. Baina beste hainbeste EHZ ere izan-

Igandea Iruñerriarena izan zen. Egunik onenean Iruñeko talderik onenak Euskal Herriko festibalik onenean

go ziren. Hitzaldietara joateko aukera hor zegoen, baina aitor dut, nahiago izan dut oraingoan ahal zenean kalean egon, aspaldi ikusi gabeko jendearekin elkartu, dantza egin, eta, nola ez, moz-

kortu. Irisarrin izan ziren besteak beste Pinar Selek ekintzaile turkiarraren bisita, Joseba Sarrionandiaren ibilbide literarioaren eta politikoaren inguruko emanaldia lehen pertsonan kontatua, bretoierazko eskola azkarrak kalean, Josu Martinezen film laburrak...

Hainbat lur mundu bakarrean kabitzen dira. Beste hainbeste jaialdi ere bai festibalari bakoitzarengan: 24 orduz lanean aritu ziren antolatzaile-arduradunak, lorik egin ez zutenak, artistak, lehen aldiz etorri eta, ziur, datorren urtean itzuliko direnak, haurrekin goiz pasa etorri zirenak, eta ni bezala hamabi hilabetez EHZ zein ona den esaten emango dutenak. Nik beti esango dut etorri egin behar dela hezur-haragitan ikusi eta sentitzeko zer den EHZ.

Astelehen iluna ari du eta ez eguraldiagatik bakarrik. Hamabi hilabete falta dira datorren urteko ediziorako eta hasi dugu atzera kontua. Aurretik hiru orduko bidaia, motxila bete aje, arropa zikin eta irribarre. Eskerrik asko zita hau posible egiten duzuen guztiei, biba zuek eta gora EHZ! ●



LIBURUA

Zahartzaroa habitatzeko moduak



AZKEN ETXEA
ARANTXA
URRETABIZKAIA
 PAMIELA, 2022

AMAIA ALVAREZ URIA

Pablo Nerudaren autobiografiaren izenburua *Confieso que he vivido* da, eta hori da liburu honek erakutsiko digun gauzetako bat. Adinekoa da protagonista, eta azken etxea izango duena erosi eta prestatzen dihardu narrazioan zehar. Tarteka, iraganak kuku egingo dio oroitzapenen bidez, soinu, irudi edo usain jakin batzuen eraginez, edo amesgaiztoen forman.

Baina ez da atzera begira edo heriotzaren zain besaulkian jarrita dagoen amona. Liburu honetan topatuko dugun beste gauza bat da bizitza abentura bat dela, edo izan daitekeela, duzun adina duzula. Protagonistaren egunerokoan itzalak agertuko dira, gainditu beharreko oztipoak. Bere ametsa

lortzeko bidean une arriskitsuak pasa beharko ditu. Katua eta sagua izango ditugu usnaka.


Hori dela-eta etxe barruko eta etxetik kanpoko niak ezagutuko dizkiogu, mo-zorroak jantzi eta erantziko ditu irakurleon aurrean eta horren inguruko sentipen kontrajarriak adieraziko dizkigu. Urduritasuna eta beldurra kudeatzeko bere ametsetako etxearekin pentsatzen du eta bertako lorategiak baretuko dio barrua. Loreen koloreek eta lurrin goxoak emango diote bakea.

Azken etxeak ihesa utzi eta atsedendekua topatzeko nahia irudikatzen du. Etxea deituko duen, eroso sentiaraziko duen, eta bertako egingo duen lekua. Sustraiak botatzeko eta landareak bezala

lasai hazten jarraitzeko gunea. Bizitzan zehar izan dituen bizilekuak “etxe” izan diren ala ez jakingo dugu, arrotz sentiarazi duten ala gustura. Erroak non bota dituen ere: familiarekin, bikotekidearekin, lagunartean edo bere buruarekin.

Noiz, non, norekin sentitzen gara etxean? Heriotza hurbilago dagoenean, nora nahi dugu joan azken urteak pasatzera? Zer behar dugu egunerokoan eroso, seguru eta gustura sentitzeko? Non ditu sustraiak kanpoan bizi izandakoak?

Arantxa Urretabizkaia protagonistak konplexua sortu eta prosa soil batekin trama ederra harilkatu du. Zahartzaroaren beste bertsio bat kontatu digu go-goan ditugun kliseak auzitan jarritz eta gure iruditeria gaurkotuz. ●



MUSIKA

Gaubeako Schubertiada

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Udan, eta are gehiago pandemia osteko uda honetan, musika jaialdi klasikoak eta bestelakoak ugaritu egiten dira. Jakina, ezin ditugu Musika Hamabostaldia –bere 83. edizioan– bezalako hitzordu garrantzitsuak galdu, baina hain ezagunak ez diren zikloak aldarrikatu behar ditugu, oso interesgarriak, eta benetako bitxiak gordetzen dituztenak.

Musika altxor horietako bat Gaubeako (Araba) Shubertiada da, uztaileko larunbatero kontzertuak eskaintzen di-

tuena. Ziklo hau Schuberten musikan zentratzen da, izenak adierazten duen bezala, nahiz eta autore hurbilen lanak ere aurkezten dituen, musikari austriarrarekin izandako jarrera artistikoaren arabera. Bestalde, abesti poetikoa eta ganbera-musika sustatu nahi ditu. Eta beti egiten du gazte-talentuaren alde, ondare hori ezagutzen eta transmititzen duen aldetik.

Ziklo honen jatorria 1997an sortu zen Bartzelonako Franz Schubert elkartearen dago. Hasiera batean, Ka-

talunian kontzertuak sustatu zituen elkarteak, baina 2018tik aurrera Gaubeak ere bat egin zuen ekimen honekin. arrakasta handiz. Izan ere, aurreko edizioetan jende ugari hurbildu da kontzertuetara.

Aurten luxuzko programa dugu: uztailaren 2an, Bachicaboko Elizan, 2013an Parisko Kontserbatorioan sortutako Hanson laukoteak Beethovenen eta Schumannen harizko laukoteak eskaini ditu.

Uztailaren 9an Carmen Artaza mezzosopranoak –duela gutxi OLBEk antolatutako *Madama Butterfly* operan paper bikaina egin zuena–, Hilko Dumno pianistaren laguntzarekin, Schubert, Mahler, Händel eta Mozarten Lieder aukeraketa eskainiko du, aldi honetan Tuestako Elizan.

Leku berean, uztailaren 16an, Erika Baikoff sopranoak, Kunal Lahiry pianistarekin batera, Schubert, Korngold, Marx, Tchaikovsky eta Rachmaninoven abestien errezitaldia eskainiko du. Azpimarratuko nituzke Rachmaninoven Sei kantuak Op. 38 lana, ahots-errepertorio unibertsalaren barruan nabarmentzen baitira kantu hauek, oso konplexuak eta ederrak direlako.

Jaialdia uztailaren 23an amaituko da, berriz ere Bachicaboko Elizan, Abel eta Arnau Tomàs anaien emanaldiarekin, Bachen obrez osatutako programa batekin. Amaiera bikaina izango da, galdu behar ez genukeen musika klasikoarekin hitzordu honentzako. ●



Kit Armstrong 2021eko Shubertiadan, Vilabertranen (Herrialde Katalanak).



Lagun onak

PERU IPARRAGIRRE TXALO

Ostiral arratsaldean da, eguna luze joan da, astea luze joan da, baina antzerkirako azken orduko gonbidapena onartuta bagoaz *Konpromisoa* antzezlanak ikustera Donostiako Antzoki Zaharrera. Azken orduan iritsi gara leihatilara, sarrerarik gabe, eta ordu gazteari eskerrak bete ditugu hutsik geratzekoak ziren bi eserleku. Eguraldi ederra dago kanpoan, jende andana kaleetan, eta uda giroak kanporantz tiratzen du.

Obraz ezer gutxi jakin gabe aulki gorrian eseri eta adin media zenbat jaisten dugun kalkulatu, zaila da esaten, baina puntu batzuk bai, zalantzarik gabe. Nola idazten da antzezlan baten erreseina? Saiatu naiz esaldi batzuk gogoan gordetzen, izenak gogoratzen, trama gertatu ahala birpasatzen, gaitan eta obrari koherentzia ematen dioten elementuetan arreta jartzen, antzezleen lana balioesten. Esaldi bat gorde dut: “Etsairik

okerrena beti amen esaten duen laguna” –edo antzeko zerbait–. Arrieta –ezkerrekoa, benetakoa, aldaketak ekarriko dituen– eta Mentxaka –eskuinekoa, betikoa, ustela – lehendakari gaien arteko debatearen aitzakian hasten da taula gainean ageri diren bi lagun arteko hizketaldia. Ramon Agirre, German antzezlearen paperean eta Joseba Apolaza, Tomas idazlearen paperean, elkarri zirketa zirtolarian abiatu dira. Komedia arina da *Konpromisoa*, eta hala ere badi-tu ezustekoak, betiere tentsioa momentu egokian umorez askatzeko. Zuhaitz Gurrutxagak osatzen du hirukotea, Gonzalo etxe-eroslearen paperean, German eta Tomas aspaldiko adiskideen arteko tirabiran harrapatuta geratuko da pisu zaharrera heldu bezain laster.

Beste esaldi bat, airean: Antzerkia bizitza da eta bizitza antzerkia –edo horrelako zerbait, uste dut–. Aktoreek

'KONPROMISOA'

NOIZ: uztailak 1

NON: Antzoki Zaharra (Donostia)

antzokiari berari eta publikoari egiten dizkieten erreferentzietan eta obrak aurrera egin ahala eraikitzen doazen fikzio edo asmakeria geruzetan hartzen du antzerkiaren joko hirukoitz horrek. Gonzalo bera ere ikuslea da obraren barruko kontakizunetan, batzuetan gertatzen ari denaren lekuko soila den arren.

Philippe Claudelena da obraren jatorrizko testua, Martin Agirrek itzuli du eta Begoña Bilbao Lejarzegik egin ditu bertso honen zuzendari lanak. Oso ona da moldaketa, frantsesezko jatorrizkoa erabat desagertu baita euskarazko bertsoan. Elkarriketetan dago *Konpromisoaren* gakoa, abiatan igarotzen da, hitzak bihurrituz egiten du aurrera, barrea eraginez. Aldi berean, laguntasunaz ari da, laguntasunaz eta maitasunaz, lagun ona izateaz, pertsona ona izateaz. Batzuetan axalekoa irudi dezake, axalekoa dirudi ere bizitzak askotan. ●

Ane Zufiaurre Feijo

ILUSTRAZIOAZ



ZALETASUNA ETA LANA UZTARTUZ

Lan egitea maite du Zufiaurrek. “Beno, lanaren arabera”, azpimarra-tu du ondoren irriz. Betidanik aisi moduan identifikatzen zuena, bide profesionaletik urratzen saiatzen ari da orain irundarra. Ilustratzaile-a denik esatera ez da ausartzen oraindik. Eskuekin buruak agintzen diona egiten saiatzen dela konta-tu digu, emaitzarekin baino, sor-men prozesuarekin gozatuz. Egun *Oarso Bidasoko Hitzan* jarduten du iritzi artikuluak ilustratzen, eta lan-keta gehiagotan jarduteko ilusioz dago, izan paperean, hormetan...

“Ez dakit nire estiloa definitzen duen izenik ote dagoen”

Irakaslea da ogibidez Zufiaurre. Ez zituen Arte Ederren ikasketak egin, “zerbait zientifikoa nahiago nuen egin” aitortu digu. Irriz kontatzen du, ordea, jakin bazekiela zeinen giro on eta ederrean ikasten duten Leioako campusean sail horretako ikasleek. Bilbon bizi da egun, baina etxera itzultzeko gogoz dago, Irunera. Barruan bizirik duen ilustratzaile sena are gehiago arakatu eta aukera bat eman nahi dio bere buruari. Zeinen erraza den ordea idaztea, eta zeinen zaila egin eta ekitea. Bitartean @ane.ilustra instagram kontuan ikusi ahal izanen ditugu bere sorkuntzak.

 **AITZIBER ZAPIRAIN**  **IRANTZU PASTOR**

Noiz ohartu zinen marraztea maite zenuela?

Gustuko izatea baino, nire egune-rokotasunaren parte dela ohartu nintzen. Orri batean, koadernoan er-tzeetan, edonon eta edozein unetan ekiten bainion. Egun ez dut nire bi-zitza marraztu gabe irudikatzen. Eta emaitzak baino, horretaraino hel-tzeko prozesua atsegin dut. Horrek asebetetzen nau.

Ilustratzailea zarela onartu diozu zure buruari?

Ez, oraindik ez. Ez dakit zergatik gai-nera. Uste dut baldintza asko behar direla horretarako, edo behar ditu-dala. Editorial batekin kontraturen bat, bizitza profesionala horretara bideratzea gehienik... Zaila zait nire buruari ilustratzaile etiketa jartzea, geroz eta normalizatuagoa dudana arren. Nire kasuan, momentuz bide horretatik lortzen dudana oso pre-karioa da ekonomikoki. Uste dut

gutziz profesionala bilakatu arte ez diodala nire buruari ilustratzaile naizela aitortuko.

Zein da zure estiloa?

Errealista den irudigintza atsegin dut, ez naiz abstraktuarekin identi-fikatua sentitzen. Piktorialeko deituko nuke, errealismo pintzelada askore-kin. Kolore aldetik bizitasuna sar-tzen ahalegintzen naiz. Hasierako garaietan dena txuri-beltzean egiten nuen arkatx eta Bic boligrafo arrunt batekin. Ez dakit nire estiloa defini-tzen duen izenik ote dagoen. Nirea da eta kito, kar kar kar! Sare sozialen bidez hainbat erreferente topatu di-tut, baina nire bidea urratzeari ema-ten diot lehentasuna.

Bost urtean behin egina dudana argitaratzen dut eta berriro hasten naiz hutsetik. Noizean behin, ilus-trazio garatuagoren eta biribilago-ren bat egiten saiatzen naiz. Askotan beste zerbaitetan nabilenean has-



ANE ZUFIAURRE

Zufiaurrek 2022. urteko *Hitzaren* egutegia apaintzeko egindako ilustrazioa.

ten naiz marrazten, ikasten edo lan bat amaitzen ari naizenean, adibidez. Orriaren ertza zirriborroekin apaintzeari ekiten diot orain.

Nola ilustratzen dira testu idatziak eta zein helbururekin?

Hasi nintzenean ez nuen egilearekin hitz egiten. Argitalpen egunaren arabera

gertakariren bat edo beste probesten nuen irudia sortzeko. Egun ordea –bi urte daramatzat jada–, egilearekin hitz egiten dut eta berak helarazi nahi duen mezuaren inguruan galdetzen diot. Berak transmititu nahi duen hori ahalik eta modurik errealean marrazteko. Batzuetan ez dut askorik pentsatzen, barne ahotsa segitzen dut. Besteetan,

ordea, buelta gehiegi ematen dizkiot. Azken batean nirea ez den testu batek abiatzen naiz eta horrek badu bere zailtasuna. Testua eta mezua nire egiten saiatzen naiz, ilustrazioa testuaren segida gisa hartua izan dadin, eta alderatziz. Osagarriak izan daitezten.

Nork agintzen du, buruak ala eskuek?

Nire kasuan buruak! Bertan dudana islatzen saiatzen naiz, eta gehienetan oso konplexua izan ohi da. Nire baliabide eta gaitasunak neurtzen ditut une oro, eta horrekin ekiten dut. Erdibideko zerbait ateratzen zait batzuetan. Zenbaitean ez naiz gai sentitzen eta azkenean errealista izateko eskatzen diot nire buruari. Prozesu hori guztia ilustrazioarekin lotzen dut. Emaizta baino, berau lortzeko bidearekin gozatzen baitut.

Ilustratzaile asko emakumeak badira ere, profesionalki jarduten duten gehienak gizonezkoak dira.

Jendarteko hainbat sektoretan gertatzen den bezala, gurean ere hala gertatzen da. Haur literaturan adibidez, emakume ilustratzaile asko aritzen da. Komikietan, egunkarietan, nobeletan... ordea gizonak dira gehienak, nabarmen gainera. Emakumeak ekarpen ezberdin bat egin dezakeela uste dut.

Irakaslea zara, hezkuntza sisteman orokorrean marrazketari bazter egin zaio.

Bai, hala da, larriki eta oraindik ere oso nabarmen gainera. Marrazketa gutxiesteari utzi beharko litzaioke, gai nontzeko irakasgaien maila berean jarri. Ez soilik marrazketa, baita musika ere, adibidez. Aisi moduan ulertzen da gehienetan, pertsonari ekarpenik egiten ez dion irakasgai gisa. Marrazketa-rekin ordea, hamaika gauza landu daitezke. Prozesua oso interesgarria izan daiteke eta ekarpen handikoa. Hezkuntzak aniztasuna bermatu behar duela uste dut, eta egun aukera bat egiten denean, bazter uzten dira beste hainbat esparru. Txuri ala beltz dirudi. Berriz planteatu beharko litzatekeela uste dut, behar eta merezi duen garrantzia emanez. ●

Pasa zaigu

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Sekulako desastrea iruditu zait. Inolaz ere gertatu behar ez zuen zerbait. Lantua joko dugu orain. Verdiren *Requiem*-a jarri –bolumen altu samarrean-. Erosiko ditugu azken liburuak, argitaratzen jarraituko ez balute bezala. Izan ere, ez dute argitaratzen jarraituko. *Requiescat in pace*, Pasazaite argitaletxea, joan den astetik badakigu jakin beharreko guztia, jakin nahi ez genuen guztia alegia. Akabo azken hamar urteetan euskaraz irakur zitekeen literaturarik onentsuena publikatu duen proiektua.

Kerouac. Blasim. Albahari. David Foster Wallace. Amaigabea nahi genuen zerrenda, aurren publikatuko dituzten bi nobedadeekin amaituko da. Kontua argitara ateratzean debate pixka bat piztuko zela behintzat espero nuen, ea zertan ari garen gure esparrutxo kultural honetan, hain gutxi eskatu eta trukean hainbeste eman digun proiektu bati ezin badiogu zutik eutsi. Inuzentea ni.

Kausa handiagoetan buru-belarri dabil mundu guztia, ez dago denborarik horrelako gauzez kezkatzeko. Akaso interesik ere ez. *Kultureta* hitza oraindik irain gisa erabiltzen den leku batean bizi gara, izan ere. Asko eskatzea litzateke.

Zuloa geratuko da. Eta pentsatzea egon zela momentu bat zeinean horrelako apustuek posible ziruditen. Rothen *Suminez*, adibidez, gaztelaniaz atera zen garai beretsuan publikatu zuen euskaraz Meettok argitaletxe donostiarrak. Denbora bat lehenago, antzekoa egin zuen Alberdaniak, orduan Paul Austerren azkena zen *Brooklyn go erokeriak* nobelarekin. Ez apustu batek ez besteak zuten funtzionatu. Nork daki zergatik. Segur aski oraindik liburu-dendara joaten denean irakurle euskaldunak pentsatzen du nazioarteko literatura irakurtzeko modu bakarra erdarara jotzea dela.



Ulertzekoa da hein batean. Daukagun eskaintza ez da konparagarria gaztelaniaz edo frantsesez aurki daitkeenarekin. Urria da oso –eta pixka bat urriagoa aurrerantzean-. Rock and rollak Euskadin ez bazuen dirurik ematen, zer eman behar du kalitate oneko literatura itzultzeak eta argitaratzeak, noiz eta orain, eskoletan ere letren asuntua debalatu baido debalatuago dagoenean. Robotika eta horrelako gauzekin ez dago konpetitzerik.

Eta problema bakarra ez da *mainstream*-ean ikuspegi hori nagusi izatea. Toki guztietan da berdin, alternatibo izan nahi dutenen bandoan ere bai. Interes falta. Kasik pasotismoa. Galdu egin da, nik uste, gurea beste hizkuntzetakoen pare jartzeko borondate kolektiboa. Edo asko lasaitu, gutxienez. Horrelako gauzengatik iruditzen zait ez garela inoiz pasatzen garentxo honetatik. Igual kontua da, hain

zuzen, ez dugula urrutirago joan nahi. Erosotasuna. Gora gu ta gutarrak. Irakurri bai, *ma non troppo*. Salduenen zerrenda begiratzea besterik ez dago. Albokoek zer irakurtzen duten –eta batez ere, zer ez-. Radarrrik gabe ere detektatzen da arazoren bat dagoela hor. Topikoak jan diola lekua ñabardurari, singularitateari, hitz batean, literaturari. Ugaritasunak molestatu egiten duela. Denak kabitu behar duela gerruntze estuegi batean.

Urrin hori dario garaiari. Ez da leku askorik geratzen Pasazaite bezalako zerbaitentzat klima horretan. Letra larriz zerbait jartzekotan, dena den, Xabi Queiruga editoreak utzi digun lezioa jarriko nuke. Azken hamarkadan mundu asko ekarri dizkigu euskal letretara, onura kolektiboko apustu pertsonal bat eginez. Kopiatu nahi duenarentzat, eredia ez da batere txarra. Orain beste batzuen txanda da. ●

2. argitaraldia



Sendabelarrek dakitena

EZAGUTU, BILDU ETA ERABILI

Garbiñe Larrea

248 orrialde

25€

+ 5€
bidalketa
gastuak

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.



azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik **08:00**etatik **15:00**etara
(beste ordutegiak aurrez kontsultatu).




ARGIA

BIZI BARATZEA

URSUA · OKENDO · PRIM KARKIZANO · COLON ELKANO · LEGAZPI URDANETA · JUAN DE GARAY HERNAN CORTES...

Agian haietako baten izena
darama zure kaleak.

Zergatik omentzen
ditugu hala?



Adi uda honetan itsasoak ekarriko duenari